



LASY PHILIS Genero-rolez haratago

«Arteaz gain, draga politika da»

Indarkeria matxista

**Emakume
salatzaileen
birbiktimizazioaz**

6-9 | Erreportajea

Uribe Kosta Zinema

**«Bilbollywood-
ekin amestu zuten
Ibarretxetarrak»**

30 | Kultura

Getxo Eguraldiaren euskara

**«Euskarazko lexiko
oso aberatsa dugu
eguraldiari lotuta»**

31 | Kultura

URRIA > AZAROA

ANTZERKIA



EMAKUME BATEN BORROKA eta METAMORFOSIA

Zuzendaria: Fernando Bernués
Aktoreak: Eneko Sagardoy, Eva Trancón, Vito Rogado

URRIAK 18
19:30/8 €

MUSIKA



IZARO Cerodenero

AZAROAK 16
20:00/25 €

MUSIKA



GALBAHEA Gotzon Barandiaran

AZAROAK 9
20:00/6 €

HAURRAK




ENE KANTAK Bisonte-mastodontearen bila

AZAROAK 17
16:30 / 19:00 / 6 €

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Erreportajea: emakumeen kontrako indarkeria
- 10 Herriak
- 20 Hirudika: *Joy* dokumentala
- 24 Berbetan: *Lasy Philis, drag munduaz*
- 28 Agenda
- 29 Lehen/orain eta Urribitakora
- 30 Nere Falagan eta Jone Ibarretxe, *Esto no es Hollywood* dokumentala
- 31 Kepa Dieguez Barahona, *Eguraldiaren euskara. Aro-bidaia Euskal Herrian barrena* liburua
- 32 Atzera begira: Jenaratxu parkea
- 34 Iritziak eta Horoskopoa
- 35 Mundukatuak
- 36 Amaia Sinobas, *dancehall* dantzaria
- 37 Mikel Erdozain, igerilari paralinpikoa
- 38 Iker Gordon, pala txapelduna
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Faceguk: euskaraz ligatzen duzu?
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Tatiana Sebastian (azaleko argazkia), Garazi Hidalgo, Ekaitz Herrero, Aner Etxebarria, Jon Lopez eta Itxaso Paya

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

HIRUKAK ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

Erakunde laguntzaileak



Getxo
bizi ezazu



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua



Sopelako Udala



Plentzia
URAREN BIDEAK



Urdulizko Udala



Gorlizko Udala



Barrikako Udala

LEMOIZ
DENONA

Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Kontuz!

EKAITZ HERRERO SAN MARTIN



36 ko urte hura urrun geratzen da. Edo agian ez. Azken finean, denbora gauza erlatiboa da oso. Edozein kasutan ere, eskualdearen hautua antifaxismoarekiko argia izan da politikoki eta kulturalki historia garaikidean zehar. Aurten, Euskal Herriko Sare Antifaxistaren urtemuga ere betetzen da. 20 urte. Baina Euskal Herri antifaxista hori askoz ere zaharragoa da.

Gauzak, ordea, ez dira estatikoak. Pertsona banakoak aldatu egiten dira, eta, horrenbestez, kolektiboaren jarrerak ere aldatzeaz daudenaren seinaleak bidaltzen dituzte. Aldaera horien eragileak askotarikoak dira. Baina jendarte sareen itoia eta bertatik – Estatu Batuetatik– gureganatzen gabiltzan eredu indibidualista eta neoliberalista horrek berebiziko garrantzia dauka. Ondorioak jakin badakizkigu: desinformazioa, elkartasun falta, ilustrazio eza...

Horri aurre egiteko, soseguz aritu behar da. Herri kolektibista bati dagokion etika solidarioa lehenetsiz. Pentsamenduaren erresistentzia landuz. Hori ez da gertatu dena Algortara ailegatu diren adin gabeko migratzaileekin. Antifaxismoaren jarrera historiko eta duin honetan, arrazakeriaren abangoardiatik arraila ireki digute. Kontuz.

Minarentzako pedagogia

GARAZI HIDALGO Familia medikua (eta beste)



XXI. mendean ez dago zertan min fisikorik jasan, badago horretarako aski botika». Maiz entzun ditugu halakoak. Bada, errealitatea ez da horrela. Badaude terapia ezberdinekin eta, batez ere, denborak lagunduta osatzen diren minak. Askok min kronikoa duen norbait ezagutzen dugu, medikuntza alopatikoari eta terapia «alternatiboari» erantzuten ez diena. Zorionez, azken hamarkadetan minaren fisiologiari buruzko ikerketa ugari egin eta tratamendu bide bat argitu da. Gakoa garunean eta pedagogian dago.

Mina, nekea, zorabioa... pertzepzioak dira, eta garunean sortzen dira. Garunak nerbio sistemaren bitartez jasotzen du gure gorputzari eta inguruari buruzko informazioa eta gordetako informazioekin (oroitzapen, kultura, emozio, sinesmen, espektatiba zein bestelakoekin) partekatzen du. Horien arabera sortzen da edo ez da sortzen mina. Eta, beraz, badago faktore horietan eragiterik: garuna hezi egin daiteke.

Idea hori da minaren neuropedagogiaren funtsa, eta ezinbesteko tresna bihurtu da, fibromialgia, migraina eta neke kronikoari aurre egiteko. Nagusiki emakumeok pairatzen ditugun gaitz horiekiko zorra kitatzeko bide bat ireki da azkenik. Oparoa izan bedi!

Puntua eta kontrapuntua **Emakumeen aurkako biolentzia**

Indarrez erantzun



Nola ote gara gai ezer egiteko taladroren bat martxan badago tarteko? Irabiagailu bat izanda, antzeko. Gutxi behar izaten da pazientzia galtzeko... pentsa zer den, mundua, gor bada entzuteko.

NAROA TORRALBA RODRIGUEZ
Larrabasterra

Naroa, gizarteak ez badu nahi entzun indar gehiagorekin ohiuka dezagun, egoera bortitza daukagu gaur egun. Eraso bakoitzari Indarrez erantzun eta jasan dutenei laztan ta maitasun.

UNAI ANGULO ALDEKOA
Algorta



Iñigo Seisdedos eta Olatz Andueza 6D2 kioskoa

«Egunez egun landu behar den negozioa da hau»



Hotza zein beroa egin, euria edo eguzkia, Olatzek eta Iñigok goizero zabaltzen dute Areetako Nagusia kalean duten kioskoa, prentsa baino askoz gehiago eskaintzeko.

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDER ZARRAGA ▶

Galzoriar dagoen lanbide horietako bat da kiosko egunkari-saltzailearena, baina Iñigo Seisdedosek eta Olatz Anduezak horri eusten eta garai berrietara egokitzen jakin dute. Bikote getxoxtar honek euren lana «gogorra» dela aitortu arren, ematen dienagatik maite dutela azpimarratzen dute. «Kiosko honegaz nire aitona hasi zen 1947 urtean; gero, nire aitak izan zuen eta, gaur egun, guk daramagu; beraz, nire familiak 76 urte inguru daramatza ogibidean», gogoratu du Seisdedosek.

«Egunez egun landu behar den negozioa da hau», dio bikoteak, gero eta egunkari gutxiago saltzen denez, publikoaren eskariari egokitzen jakin behar dutelako. «Aldizkariak ondo saltzen dira oraindino, baina, bizirauteko, bestelako artikulua sartu ditugu: postalak, imanak, lo-

reak, txakurrentzako gauzak, loteria...». Horrez gain, sare sozialetan ere mugitzen dira, eta bezeroen eskari bereziak ere hartzen dituztela dio Anduezak: «Getxoko bezeroez gain, Portugaletetik, Sopelatik edo Plentziatik ere etortzen zaizkigu; Alemanian bizi den bati urte osoko aldizkari baten argitalpenak ere gordetzen dizkiogu».

Euren lanaren ardatza kioskoa bera dela azpimarratu du Seisdedosek, ahalegin handia egin baitzuten hori lortzeko. «Kioskoen friki baten modukoa naiz, hau ikusi eta maitemindu egin nintzen; Espainian halako bi daude: hau eta Tarragonako beste bat». Diotenez, berezia da zabalik dagoelako eta irekia delako, baina, estalita dagoenez, eta oso irisgarria denez, «horrek jendea sartzera gonbidatzen du».

Egunkariak astelehenetik domekara saltzen dituzte, 07:00etatik 14:00etara, eta aste bitartean arrastietan ere. «Batzuetan astuna da, baina nik ez nuke beste ezergatik aldatuko; hemen mugimendua dago, auzokideak ezagutzen ditugu eta egunero desberdina da», dio Anduezak. Tamalez, deitoratu dute belaunaldiz belaunaldi pasatzen den negozioaren lizentzia beraiekaz amaituko dela, alabengan jarraipenik izango ez dutelako. ◀

Indarkeria matxista, salaketetik harago



Urteotan, genero-indarkeriaren inguruko ikuspegia nabarmen hobetu den arren, gizarteko alderdi guztien bilakaera ez da parekoa izan. Esaterako, biktimen arretarena da hobetzeko asko duen esparruetako bat, salatzen urratsa ematen duten emakume askok zalantzaz betetako bide bati ekiten baitiote, non birbiktimizazioa etengabe ematen den.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA**

ARGAZKIAK: **HIRUKA, SORTZEN ETA PSE-EE GETXO** ▶

Segurtasun Sailak argitaratutako azken datuen arabera, EAEn sexu-erasoak % 30 hazi dira urteko lehen seihilekoan; hau da, 2024ko urtarriletik ekainera. Guztira, epe horretan salatutako sexu-askatasunaren aurkako arau-haus-teak 491 izan dira. Mota horretako delitu gehien izan dituzten udalerrien artean dago Erandio, Bilbo, Eibar edo Irunegaz batera. Bertan, epe horretan 11 kasu salatu zituzten, iazko epe berean baino lau gehiago. Eraso horien gorakadaren inguruan galdetuta, Altzagako Bake ta Atake talde feministako kideek baieztatu dute salaketen gorakada hori azken bi urteetan nabaritu dutela, eta horiek etxebizitzan barnean eman direla, «horregatik, etxebizitzak espazio ez seguru izaten jarraitzen duten bitartean, komunitatea bihurtu behar dugu babesleku». Ildo horretan, Eustaten 2022ko datuen arabera, EAEn emakumeek salatutako erasoen % 73 baino gehiago bikotekide edo bikotekide ohiek egindakoak izan ziren, % 18,2 familia barrukoak eta % 8,5 sexu-indarkeriagaz lotutakoak.

Datu horiek mahai gainean jarrita, Erandioko Udaleko Berdintasun teknikaria den Maider Gorroñok adierazi du tentuz hartu behar direla, eta horien erabilgarritasuna erlatibizatu egin du. Dioenez, salaketen atzean dagoena jakitea oso zaila da, «kasuistika asko daudelako», baina bai azpimarratu du emakumeen aurkako indarkeriaren datuek gora egin dutela erasoak lehen baino gehiago eta hobeto identifikatzen direlako: «Begirada aldatu egin da; lehen, parrandan egon zitezkeen erasoak normaltzat hartzen ziren; orain, hori ez da horrela». Erandiori dagozkion datu orokorren harira, teknikariak nabarmendu du Sonora diskoteka ere daukatela, «hor astebururo gertatzen dira gauzak, eta gehienetan ez dira herrikoek eragindakoak izaten»; gainera, Ertzaintzaren polizia-etxea ere daukatela azpimarratu du, «eta horrek ere eragina izango du datuetan».

SALATZEAREN KOSTUA. Norma Vazquez psikologo eta ekintzaile feministak 40 urte baino gehiago daramatza hainbat erakundetan lanean, tartean, Mexikoko CIDHAL Latinoamerikako lehen zentro feministan. Bilbon, Sortuz elkartearen eratu zuen eta, gaur-gaurkoz, horretan dihardu emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko aholkularitzan eta ikerkuntzan. Erasoen gorakadari buruz galdetuta, arrazoitu du 2004an genero indarkeriaren aurkako babeserako onartu zen legeak biktimei salatzea gomendatzen ziela. «Horrek, gorakada azaldu dezake, baina ez du esan gura arazoa salatzeagaz batera konponduko denik, gerta daitekeelako salatzea eta arazoa konpontzea, jaramonik ez egitea edo indarkeria areagotzea». Bere ustez, indarkeria matxistaren bilakaera «aurreraka zein atzeraka» joan da; hau da, arazoa ikusarazi egin da eta kontzientzia piztu da, «baina erakundeak astiroegi ari dira eboluzionatzen emakumeen beharrezan asetzeko».

Ekintzaile feministaren ustez, salaketa emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko tresna bat gehiago da: «Ikuspuntu sozialetik zein psikologikotik lan egiten dugunok argi dugu hori, baina alde judizialean eta polizialean ez, ezta osasunekoan ere; beraz, paraleloan doazen bi eboluzio daude». Gorroño bat dator Vazquezen berbakaz, eta adierazi du salaketa jartzen denean amildegira ate bat zabaltzen zaiela emakume askori, eta arrisku-mailaren intentsitatea asko areagotu dezakeen inflexio puntu bat izan daitekeela, «erasotzaileak epaitegietatik zitazio bat jasoko duelako».

Behin salaketa jarrita, sexu-erasoa jasan duten emakumeek agente ezberdinetatik sufritzen duten birbiktimizazioa ere azpimarratzekoa da, gehiegitan behar bezalako prestakuntzarik gabeko profesionalak artatzen baitituzte. Hainbat adibide daude, eta horietako bat da Conchi Granero bortxaketa baten biktimak salatutakoa. *El País* egunkariak bere abokatuari bidali zion gutuna eta elkarriketa argiratu zituen: «*Te hacen creer que lo mejor es contarle, pero luego te abandonan*». *Carta de una víctima de violación (El País, 2024/10/03)*. Horretan, Granerok bizitako kalbarioa azaltzen du: salaketa jarri zenean poliziakaz eta medikuakaz egon zenean bizitakoa, epailearen aurrean deklaratu zenean jasotako tratua eta epaiketaren bizi izandakoa. Horrek, justiziarekiko mesfidantza eragin ziola dio, besteak beste.

ARRETAREN ERRONKAK. Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeek jasotzen duten lehen mailako arreta udalen ardura-



«Arreta-sistema birplanteatu behar dugu: nondik artatzen den, nola artatzen den eta zer diru bideratzen den horretara»

NORMA VAZQUEZ
EKINTZAILEA ETA PSIKOLOGOA



«Udalerrri askotan ez dago baliabiderik, edo, izan arren, konpromiso politikoa falta da»

MAIDER GORROÑO
ERANDIOKO UDALEKO
BERDINTASUN TEKNIKARIA



«Jaiak bereziki arriskutsuak izan daitezke sexu-erasoei dagokienez, horrenbestez, puntu moreak kokatu ditugu arretan espezializatutako teknikariakaz. Aurten emaitzak onak izan dira, gauero 50 pertsona inguru hurbildu dira informazio eske»

CARMEN DIAZ
GETXOKO UDALEKO GIZARTE
KOHESIOKO ZINEGOTZIA

pean dago, aldundietatik bigarren mailako atentzioa jasotzen baitute. Eusko Jaurlaritzak ez du zuzeneko berariazko zerbitzurik, horren ordez, indarkeria psikologikoa, fisikoa, sexuala edo ekonomikoa jasaten duten emakumei arreta emateko telefonoa dauka -900 840 111 zenbakiaren bitartez kudeatzen da hori-. Uribe Kostan, Getxok, Erandiok eta Leioak euren arreta-zerbitzu propioak dituzte, eta gainontzeko udalerriek Mankomunitatearen esku uzten dute hori.

Erandioko Berdintasun teknikariak gogoe-ta egin du indarkeriaren biktimak diren emakumei ematen zaien arretaren inguruan. Dioenez, ageriko kasu oso larriak ez direnean, prest egon arte ez salatzeke gomendatzen diete emakume askori: «Horrek aurretiatzko aholkularitza- eta laguntza-prozesu bat behar du, eta zerbitzu psikologikora datozen askok ez dute salatu nahi indartsu sentitzen diren arte». Ildo horretan, Erandioko Udalaren konpromisoa eta baliabideak goraitatu ditu Gorroño, asistentzia psikologikoa eta juridikoa eurek kudeatzen baitituzte eta Udalak datu-base bateratua partekatzen baitu Udaltzaingoagaz, zerbitzu sozialakaz eta emakume horiei laguntza emango dieten gainontzeko profesionalakaz. «Hobetzeko gauza asko dago, noski, baina Berdintasun arloari dagokionez, Udalaren partetik konpromisoa dago eta baliabideak zein dirua ditugu; adibidez, bakarrik zerbitzu psikologikoan 6.000 euro baino gehiago gastatzen ditugu hilero. Udalerrri gehienetan hori ez da gertatzen, ez dute hainbeste baliabiderik eta Bizkaiko Foru Aldundira bideratzen dituzte biktima asko».

Getxon, Leioan eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean ere ematen dituzte aholkularitza-zerbitzu juridikoak eta psikologikoak. Kasuen arabera, salaketak Ertzaintzan, udalerrri bakoitzeko udaltzaingoan, osasun-sisteman edo epaitegietatik sartzen dira, eta horiek gero udalerrri bakoitzeko gizarte zerbitzuetatik bideratzen dituzte. «Horrela bideratzen dira kasuak, gizarte zerbitzuek dutelako eskumen legala», azaldu du Carmen Diaz Getxoko Udaleko Gizarte Kohesio zinegotziak.

Biktimak diren emakumei arreta ematen dieten profesional eta erakunde ezberdinen arteko koordinazioa eta horien prestakuntza da gaur-gaurkoz erronkarik nagusienetako bat. Adibidez, Gorroño dio beraiei ez zaizkiela Erandion Ertzaintzan jartzen diren salaketen inguruko datuak heltzen, eta horrek beraien lana oztopatzen du. «Uribe Kostan izandako azken kasuaren berri egunkariaren bitartez izan dugu, eta guk deitu behar izan dugu informazioa jasotzeko», azaldu du Yolanda Chaparro Mankomunitateko Berdinta-



Erandion, azken urteotan indarkeria matxista salatzeako elkarretaratzeak biderkatu egin direla adierazi du mugimendu feministak.

sun teknikariak, beraiek ere arazo hori dutela baieztatuz. Getxoko zinegotziak ere hor jarri du fokua, azpimarratuz beraienezako sistema ezberdinen arteko koordinazioa dela garrantzitsuena, eta, horregatik, Getxon koordinazio-mahaia antolatzeke egiten ari diren ahalegina nabarmendu du politikariak.

EGITURAZKO ARAZOA. Vazquezen iritziz, oro har, zerbitzu horiek ez dira onak, profesionalen prestakuntzan inbertitu arren, zerbitzuak ez direlako hedatzen eta gabezia asko dituztelako. «Kontua da udal askok ez dutela beharrezkoa ikusten horietan gehiago inbertitzea, uste dute dauzkaten kasuen kopururako nahikoa dela Aldundiak ematen dien zerbitzuagaz, eta ez dute esku-hartze eredu aldatzeko beharrik ikusten». Bere esanetan, udalek banan-banan ezin dute arreta-sistema osorik aldatu, arazoa egiturazkoa baita: «Eus-

16

salaketa izan dira Getxon, 2024ko lehen sei hilabeteetan, sexu-askatasunaren aurkako delituak lotuta, iaz baino zazpi gehiago. Leioan, lau izan dira aurten eta iaz bakarra.

% 73

izaten dira bikoteen edo bikote-ohien aldetik jasotako erasoak. % 18,2 familia barrukoak eta % 8,5 sexu-indarkeria-koak.

kadiko gizarte-zerbitzuen sistema da arazoa, hasieratik nola egituratuta dagoen, hain zuzen». Arlo horretan egiteko asko dagoela adierazi du ekintzaile feministak, eta ikuspegi feministak batetik abiatzen den agente guztietan prestakuntza ezinbestekoa dela azpimarratu du. «Zerbitzu hauek udaletako berdintasun arloetan oinarritu beharko lirateke, ez gizarte zerbitzuetan», ebatzi du.

Azkenik, ekintzaile eta psikologo mexikarrak dei egin du fokua erasotzaileengan jartzera, eta ez biktimengan, ezta gazteak bezalako kolektiboengan ere. «Lehenik eta behin, emakumeekiko dugun portaera aztertu beharra dugu. Erasotzaileak ere ez ditugu exageratu behar, ez dira munstroak, gure inguruan dauden gizon normalak dira. Horrez gain, indarkeria gizarteko esparru guztietan dago, ez dezagun fokua jarri soilik gazteengan eta halako kolektiboetan». ◀

Getxo HAPOari aldaketa zehatza onartuta

Etxebizitza turistikoei muga jarri gura die Udalak

HAPOaren aldaketa uztailean onartu zuten arren, betiko onarpena eman zioten azken udalbatzan; alegaziorik gabe, EAJ, PSE-EE eta EH Bilduren aldeko botoakaz.

Joan den irailaren 26an egindako osoko bilkuran, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) aldaketa zehatza onartu zuen Getxoko Udalbatzak, Portu Zaharreko etxebizitza turistikoei mugatzeko eta udalerriko gainerako tokietan arautzeko. Uztailean onetsi zuten hori hasiera batean, eta oraingoan behin-betiko onartu dute, inolako alegaziorik gabe, EAJ, PSE-EE eta EH Bilduren aldeko botoakaz; PP eta Elkarrekin Podemos abstentitu egin dira.

EAJ eta PSE-EE alderdiek nabarmendu zuten, HAPOaren aldaketa horren helburua da «Portu Zaharra eta jabeen komunitateen bizikidetzak babestea». PPK ez zuen uztailean emandako iritzia errepikatu gura izan, orduantxe esan baitzuen ez zettorrela bat Portu Zaharreko etxebizitza turistikoei mugatzeagaz, ez baitu uste gaur egun arazoa direnik. Bestalde, EH Bilduk, uztailean bezala, deitoratu zuen aldaketa «berandu» datorrela, eta araudia «zorrotzagoa» izan litekeela, eta Portu Zaharraz gainera Getxoko beste gune batzuk babestu beharko liratekeela. Hala ere, aldeko botoa eman zuen,



Turismo Sailak 181 etxebizitza eta apartamentu turistikoei zuten erregistratuta urrian.

181

etxebizitza edo apartamentu turistikoei daude Getxon Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailean erregistratuta, 2024ko urrirako.

%120

hasi da kopurua 2020ko erregistroak alderatuta.

bere zuzenketa onartu zelako, eraikin jakin batean etxebizitza turistikoei hartzen duen metro koadroen erabilera-ehunekoa gehienez ere % 38koa izateari buruzkoa. Azkenik, Elkarrekin Podemosen abstentziara jo zuen, bere iritziz, onetsitako proposamenak ez dituelako nahikoa neurri ezartzen herritarrek etxebizitza turistikoei dagokienez dituzten arazoak hobetu daitezzen.

Getxon, lerrook idazterakoan, urrian, erabilera turistikorako 181 etxebizitza eta apartamentu zituen erregistratuta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak, duela urtebete baino 29 gehiago. Zenbatekoak gorabeherak ditu hilez hile, baina tendentzia goranzkoa da 2016tik gaur egunera. ◀

SAN NIKOLAS
IKASTOLA
SANIKOLAS.EUSIZATOAZ

ikastolenekartea

Arenezpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

94 430 54 78
ikastola@sanikolas.eus

Getxo Indabada

«Mende laurden herrian ereindakoa uzta(R)hartzen»

Urriaren 26an, zapatuan, ospatuko dute Algortan Indabada jaialdia. Aurtengo edizioa 25.a izango da eta, hori ospatzeko, egitarau berezia prestatu dute antolatzaileek.

Algortako gazteen eta ez hain gazteen artean egun seinalatua bihurtu den Indabada urriaren 26an ospatuko da aurten, eta 25. edizioa izango da oraingoa. Zilarrezko eztei bereziok ospatzeko, berritasun ugari prestatu dituzte antolatzaileek. Besteak beste, kuadrillen arteko txapelketa azpimarratu dute, belaunaldi ezberdinetako pertsonen parte har dezaten eta ekimena bera San Nikolas plazatik atera eta herri osora zabal dadin. Horretaz gain, herriko musika eta kultura talde eta elkarteak elkarlanean arituko direla iragarri dute, sortzaileei ahotsa emateko asmoz.

25 urteko ibilbidea ospatzeko, gainera, dokumental bat ere prestatzen ari dira, edizio honetako irudiak ere jasoko dituen. «Bertan 25 urte hauetako ibilbidea erakutsiko dugu, baita Indabadaren eragina herrian ere», azaldu dute.

Indabada antolatzen dutenek oso balorazio ona egiten diote ekimenak egindako mende laurdenari: «Inda-



Indabadaren aurreko edizio bat.

badara belaunaldiz belaunaldi jende berria gehitu izan da eta polita da horren balore eta filosofia herriko gazteen aldaketa eta gustuekin batera aurrera nola doan ikustea».

Talde motorrean 15-20 pertsona inguruk dihardute lanean ekimen honi forma ematen, baina egunean bertan laguntzeko prest agertzen den herritar ugari alboan izaten dutela nabarmendu dute, eta aurten ere horrela jarraitzea espero dute. Hala ere, antolaketa-lanetan lagundu gura duen oro ondoetorria dela diote, «aurten ere goazen Indabadan denok gure aletxoak jartzera!». ◀

Getxo Arrastiko txandan

Alangoko anbulatorioak pediatria-zerbitzua berreskuratu du

Alangoko anbulatorioan ez da pediatria-zerbitzurik egon joan den maiatzetik. Uribeko ESiko arduradunek azaldu dute bost hilabeteotako gabezia hori Osakidetzako EPEko esleipenen «ondorio» izan dela, profesional ugari lekuz aldatu baitziren. Zehazki, Alangoko arrastiko txandan zegoen pediatria lekuz aldatu zuten eta, Algortako osasun-zentro hori esleitu zitzaion profesionala ez zen lanpostuan hasi, «kontziliaziorako eskubidea erabilia». Geroztik, ez dira gutxi izan kexatu diren familiak eta profesionalak, eta horretaz ohartarazi du, besteak beste, ELA sindikatuak. Hala ere, Uribe ESiko arduradunek azpimarratu gura izan dute haien ardura izan dela Getxoko herritarrei pediatriako osasun arreta hori berriro eskaintzea. ◀

Getxo EH Bildu eta Elk. Podemos

«Irurak Bat»en eraisketa eta Hirigintza Saila, ikerketapean

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-ek ezohiko batzorde bat deituko eskaera egin dute, «Irurak Bat» jauregiaren legez kanpoko eraisketaren zalantzak argitzeko –Udalak emandako argipenak eznahikoak direla iritzi dio oposizio osoak-. Batzorde horrek, gainera, Hirigintza Arloaren funtzionamenduaren inguruan antzeman dituzten «irregulartasunen» berri eman beharko du. ◀

Euskara eroso bizitzeko

aek
euskara praktikoa

Uribe Kostako AEK EMAN IZENA!

EUSKARA-IKASTAROAK

Leioa · 94 464 60 63 · lamia@aek.eus

Getxo · 94 430 47 34 · lauaxeta@aek.eus

Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus

Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.aek.eus/blogak/uribekosta

www.facebook.com/uribekostako.aek

EHU Irakaslea kaleratua izango da

Iruzkin faxistak eta sexistak zabaldu ditu irakasle batek

Zuzenbide Fakultateko ikasle batzuek irakasleak sare sozialetan egindako iruzkinak salatu zituzten horren aurkako protestak piztuz.

Sare sozialetan iruzkin arrazistak, klasistak, matxistak, misoginoak eta falangistak idatzi zituen lan-zuzenbideko irakaslea kaleratzea erabaki du Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU). Irakaslea duela gutxi kontratatu zuten Leioako campusean amatasun-baja bat betetzeko.

EHUk azaldu duenez, ikasleek kasua salatu zutenean, prozedura bat ireki zioten Genero Indarkerien aurkako Protokoloa jarraituz, baina «egoera juridikoki aztertu ondoren», irakaslea kargutik kentzeko prozesua abiatzea erabaki dute. Halaber, irakasleak sare sozialetan argitaratutako gorroto-mezuak Fiskaltzaren aurrean ere salatu ditu unibertsitateak, horren printzipioakaz «argi eta garbi bateraezinak» direla iritzita.

Euren aldetik, irakasle horren ikasleek komunikatu baten bidez adierazi zuten haien gaitzespena, irakasleak unibertsitatean berriro eskolarik ez emateko eskatuz. Ohartarazi zutenez, mezu horiek, balio demokrati-koen aurkakoak izateaz gain, Zigor Kodean tipifikatutako gorroto-delituak ere izan zitezkeen. Ikasleek sare sozialetako iruzkinen



Irailaren 30ean, elkarretaratzea egin zuten irakaslearen kaleratzea eskatzeko.

Sare sozialetan, irakasleak mezu matxistak, homofoboak eta Falangearen gorazarrekoak argitaratu zituen, baita abortuaren aurkakoak eta LGTBQ+ kolektiboko pertsonen buruzko iruzkin iraingarriak ere.

berri izan zutenean hasi zen guztia. Horiek unibertsitateari helarazi zizkioten, baina erantzunik jaso ez zutenez, talde batek irakaslearen klasea eten eta campusetik kalera- tzea erabaki zuen. EHUko arduradunek ekin- tza hori gaitzetsi zuten, ikasleek egindako «hertsapena» unibertsitatearen balioen aur- kaka dela iritzita.

Protestek irailaren 30ean jarraitu zuten, Zuzenbide Fakultatean ehunka ikasleek elka- rretaratze masibo bat egin zutenean. Ikasleek komunikatu bat irakurri zuten irakaslea be- rehala kanporatzeko eskatuz, eta defendatu zuten unibertsitateak ez duela onartu behar ideia faxisten zabalkundea, ezta kolektibo kalteberen, langile-klasearen edo emaku- meen aurkako jarrerak ere. ◀

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
- Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

Leioa Kirol-instalazioen hobekuntza

Sarrienako futbol-zelaiak belar artifizial berria du

Leioako futbol-zelaiko soropila aldatu dute, 432.300 euroko inbertsioa eginda. Hala, tokiko klubek baldintza hobetan egin dezakete kirola egun.



Hurrengo hilabeteetan argiteria ere berrituko dute. LEIOAKO UDALA

Leioako Sarriena futbol-zelaia berritu dute daborduko, ordezkapen-lanak amaitu ondoren. Udalak bultzatutako berrikuntzari esker, besteak beste, Udondo, Gazteluzarra, Txatxarrene, Leioako Emakumeak eta S.D. Leioa klubek entrenatzeko eta baldintza hobetan lehiatzeko aukera izango dute. Datozen hilabeteetan instalazio horietako 1. eta 3. eremuetako argiak ere berrituko dituzte. Esku-hartzea abuztuan eta irailean egin dute, udako geldialdiagaz ba-

tera, kirol-jardueren gaineko eragina murrizteko. Udal-iturriek nabarmendu dutenez, soropila berritzea beharrezkoa zen, aurreko belar artifizialak 15 urte zeramatzalako erabileran eta bizitza baliagarria gaituta zuelako. Azpimarratu dutenez, izpi ultramoreen eraginean egoteak zuntzak degradatu zituen, eta horrek jokalekuaren segurtasuna eta kalitatea kaltetzen zituen. Leioako Udalak 432.300 euro baino gehiago inbertitu ditu hobekuntza horretan. ◀

Leioa Euskara-plana

Leioan euskararen erabilera sustatzeko plana egingo du Udalak

Herrian euskararen erabilera sustatzeko plan estrategiko bat diseinatzeko hasi dela iragarri du Leioako Udalak. Horren helburua 2034ra bitartean lan-ildoak zehaztea izango dela aurreratu du. Udal-iturriek zehaztu dutenez, plan honek komunitate euskaldun aktiboagoa eta ahalduagoa sendotu gura du ingurune eleantunean, hainbat eremutan euskararen erabilera bultzatuko duten ardatz estrategikoak eta ekintza-ildoak zehaztuz.

Prozesuaren lehen urratsa, Leioako hizkuntzaren egungo egoera islatuko duen diagnostikoa egitea izango da. Horretarako, galdetegi bat ireki dute udalerriko gizarte-eragileentzat eta herritarrentzat, euskararen erabilerari buruzko iritziak eta pertzepzioak eman ditzaten. Formularioa online dago eskuragarri urriaren 21era arte, Udalaren webgunean dagoen estekan.

Halaber, azaroan, jendaurreko parte-hartze saio bi egingo dituzte. Lehenengoan, euskarak udalerrian egun bizi duen egoerari buruzko hausnarketa bultzatuko dute, eta bigarrenean, berriz, planak datozen urteetan izango dituen erronka nagusiak zehaztuko dituzte. Udalaren ustez, ezinbestekoa da komunitatearen inplikazioa. Modu horretan, benetako beharrei erantzungo dien eta Leioako biztanleen eguneroko bizitzan euskararen erabilera sendotzen lagunduko duen plan bat zehaztu ahal izango dute. Ekimen honen bidez, gero eta euskaldunagoa den Leioa baterantz aurrera egin gura dutela azpimarratu dute, testuinguru eleanitz batean euskararen sustapenean eredu izan dadin. ◀

ANDER DEUNA IKASTOLAKO IKASLE OHI EGUNA

URRIAK

ander deuna IKASTOLA

<p>11:00 ORIENTAZIO JOKOA</p> <p>15:00 IKASLE OHIEN BAZKARIA</p> <p>20:00</p>	<p>14:00 IKASTOLATIK IBILBIDETXOA OSTEAN, PHOTOCALL</p> <p>17:00 KONTZERTU PARTEHARTZAILEA</p>
---	--

ANIMATU ZAITEZTE!

Plentzia Isuskitzako errepidea

Udalak errepidea hobetzeko lanak abiatu ditu Isuskitzan

Isuskitza urbanizazioko sarbidea itxita egongo da urrian Plentziatik hurbilen dagoen sarbidean, bide-segurtasuna hobetzeko egingo dituzten lanak direla-eta.

Plentziako Isuskitza urbanizazioan bide-segurtasuna hobetzeko lanak hasi dituzte daborduko, eta eremu horretarako sarbidea urriaren 31ra arte itxita egotea aurreikusi du Udalak. Itsasadarren ondotik doan tarteko errepidea da itxi dutena, Plentziako hirigunetik gertuen dagoena, hain zuzen ere. Neurri hori beharrezkotzat jo dute horma eusteko lanak egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak inguru horretako segurtasuna indartzeko bultzatutako proiektu zabalago baten parte baita.

Harresiaz gainera, urbanizaziora sartzeko kaleak erabat berriz asfaltatzea ere aurreikusi dute proiektuan. Tokiko administrazioaren arabera, obrak «partxerik eta zigilurik» gabe egingo dituzte, erabiltzaile guztientzako konponketa iraunkor eta segurua bermatzeko.

Esku-hartze hori Isuskitzako bizilagunei arrazoia eman zien epai judizial batetik dator, epaitegietatik Udalari eskatu baitiote sarbide nagusietako bat konpontzeko. Auto judizialak egutegi argia ezartzen du: hiru hilabete proiektuaren idazketa lizitzatzeko, sei hilabete obrak esleitzeko eta urtebete osorik



Udalak konponduko duen Isuskitza auzora sartzeko errepidearen tartea. GOOGLE

2016ko gatazka

Isuskitzara sartzeko arazoak ez dira berriak. 2016an, David Crestelo garaiko alkateak bidea ixteko agindu zuen «segurtasun arrazoiengatik». Horrek bizilagunen protestak eragin zituen eta auzitara jo zuten. 2023an, Udalak bide-segurtasuna bermatzeko konponketak egin behar zituela ebatzi zen.

gauzatzeko. Epe horiek betetzen ez badira, arduradunek hertsatzeko isunak jasoko dituztela zehaztu dute auzokideek publiko egindako komunikatuan.

Isuskitzara sartzeko errepidea, lehen erabilera pribatukoa zena, jabetza publikoko deklaratu zuten 2020an. Erabaki hori Udalak agindutako ikerketa baten ondoren hartu zen, eta bidea tokiko ondasunen inbentarioan sartu behar zela ondorioztatu zen. Ebazpen horreagz, udal-gobernuari dagokio zuzenean errepidea mantentzeko eta kontserbatzeko ardura, eta, orain, eskatutako hobekuntzak bete beharko ditu. Hartara, momentuz, hilaren amaierara arte egingo da itxita, obregantik. ◀

GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

ARANTZA ETXEBARRIA
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Berango Nazioarteko Milia

Estatu mailan erreferente den Milia, urriaren 12an

Bueltan da Berangoko Nazioarteko Milia, Espainiako Estatuko miliarik onena RFEAren arabera. Lasterketa urriaren 12an egingo dute, zapatuan, arrastiko 16:00etatik aurrera. Aurten ere, aurreko edizioetan bezala, mundu-mailako korrikalari onenak arituko dira lasterketan, baita udalerriko oinarrizko kirolariak ere. Udalak jakinarazi duenez, streaming bidez emango dute lasterketaren berri, YouTube-tik, udalerrira bertaratzeko aukerarik izango ez dutenek lehiaz goza dezaten. Guztira, hainbat kategoriatan banatutako 18 proba anto-



36. edizioa izango da aurtengoa.

latu dituzte lasterketa osatzen duten 1.609,344 metroko distantzian lehiatzeko. Bertan, lehen mailako atletakaz batera, adin eta maila guztietako lasterkariak elkartuko dira, paralinpikoak barne. ◀

Berango Umeentzako txangoa

Madrilgo Warner parkera bisita, abenduaren 7tik 8ra

Berangoko Udalak Warner parkera joateko txangoa antolatu du abenduaren 7tik 8rako, 2009-14 urteen artean jaiotako neska-mutilentzako, 205 euroren truke. Interesatuek izena eman dezakete Berangoeta kultur etxean, hilaren 11ra arte; guztira, 50 plaza egongo dira betetzeko. ◀

Berango Obrak

Lantzarte birmoldatzeko proiektua, ikusgai

Berangoko Lantzarte auzoa goitik behera birmoldatzeko proiektuaren exekuzioaren nondik norakoak ikusgai jarri ditu Udalak bere webgunean. Horretan, planoak eta etorkizuna iragartzeko infografiak daude, besteak beste. ◀

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

*Etxean zure kotxea jasotzeko zerbitzua eskaintzen dugu!

NEGUAN, IZAN ZURE KOTXEA PREST:

<p>Automobileko bateria erreibisatu eta, beharrezkoa bada, alda ezazu.</p> <p>Olio, hozgarri, haizetako garbitzaile eta balaztako likidoen mailak ikusi.</p> <p>Botika-kutxa egokia eta manta eroan.</p>	<p>Pneumatikoak aztertu. Komeni da neguko pneumatikoak edo elur-kateak eroatea.</p> <p>Argi- eta balazta-sistemak aztertu.</p> <p>Haizetako-garbigailuak aztertu.</p>
--	--

*ITV-a gainditzeko irizpideak ematen ditugu!

946 763 814 • talleresartolozaga.com • Gatzarriñe Kalea, 42 SOPELA

Gorliz Lan-eskubideen defentsan

Kale-garbiketako enpresako beharginak greban daude

Gorlizko Enviser kale-garbiketako eta hondakin-bilketako enpresako beharginak greban daude euren lan eskubideak aldarrikatzeko asmoz. Printzipioz, urriaren 20ra arte eten dute euren jarduna. Egungo langile-taldea 12 kidek osatzen dute, eta enpresak 2020tik du udalbatzagaz kontratua. Greba dela eta, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez ezarri ditu gutxieneko zerbitzuak. Hala, eguneroko ohiko zerbitzuaren % 25a egin beharko dute, txandaka, herri osoan zehar, batez ere haurparke eta eskola-patioen eremuak garbituz. ◀

Lemoiz 2025eko egutegia

Herriko egutegiko argazkiak aukeratzeko lehiaketa egingo dute

Aurten ere, Udalak argazki-lehiaketa bat abiarazi du udalerriko bizilagunen artean doan banatuko duten eta 2025eko egutegian Lemoiz ilustratzeko erabiliko diren 12 irudiak aukeratzeko. Argazkiak «Lemoiz eta herritarrak» gaiaren ingurukoak izan beharko dira, eta irudiak zaharrak zein garaikideak onartuko dira (gehienez, hiru pertsona bakoitzeko). Argazkiak Armintzako kultur etxean entregatu ahal izango dira, urriaren 24tik 31ra, arrastiko 17:00etatik 20:30era. Bestela ere, helbide elektronikoaren bidez bidal daitezke argazkiak: lemoiz.lehiaketa@gmail.com. ◀

Sopela Jaietako txosten teknikoaz

Fidantza kentzeko auzia ireki du txosten teknikoak

Udaltzaingoaren txosten tekniko batek zehaztu ei du txosnek Jaietako Ordenantza urratu zutela, besteak beste, musikaren ordutegia ez errespetatzeagatik.



Txosna Batzordeak prentsaurreko bat eman du egoera salatzen. HODEI TORRES

Txosna Batzordeak eta Sopelako Udalak bilera egin zuten joan den irailaren 12an, jaietako fidantza atxikitze arrazoiak azaldu eta alde bien arteko komunikazioa estutzeko asmoz. Udalak ondorioztatu du ezarrita dauden neurriak aplikatu behar dituela, eta jakinarazi du inplikaturik dauden taldeek helegitea jartzeko aukera dutela. Txosna Batzordeko kideek, aldiz, uste dute hori «gertatutakoaren errealitate-tik aldentuta» dagoela. Diotenez, udaltzainek txosten-teknikoan hiru egun zehaztu zituzten: lehenengo

bietan, eguen eta domeka gauetan, ez zen jai girorik egon; eguenean, ez zirelako jaiak oraindino hasi; eta, domeka, ez zegoelako jai girorik eta, ondorioz, txosnak itxita zeudelako. Hirugarren egunari dagokionez, martitzen goizaldeari dagokio, eta eragileek deitoratu dute udaltzainak ez zirela txosna-gunera bertaratu, eta horrela adierazten duela txostenak: «Auzokideek egin-dako ustezko telefono deietan oinarritzen da». Udalak, bere aldetik, zehaztu du txosten tekniko baten aurrean bera «behartuta» dagoela prozedura horregaz jarraituz. ◀



ALGORTAKO ETORRIDEA, 59

bai
euskarari

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

UrIBE Kostako Mankomunitatea Ikastaroak

Osasun mentalari buruzko eta Lilaguneko ikastaroak

Lilagunek, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko emakumeen ahalduztzerako eskolak, bere ikastaroetan izena emateko epea ireki du, eta urriaren 11n itxiko du. Guztira, zazpi tailer eskainiko dituzte, doan. Horrez gainera, Uribe Kostako Mankomunitateak tailer batzuk antolatu ditu 1995 eta 2009 bitartean jaio eta Mankomunitateko udalerriren batean erroldatutako gazteei prestakuntza eta tresnak eskaintzeko. Ekimen horren helburua da bizitzaren erronkei erresilientziaz eta indar emozionalerantz aurreratu ahal izatea.

Ahalduntze eskolaren kasuan, zazpi tailer eskainiko ditu guztira, hainbat prestakuntza profesionalakaz. Horietako bat «Tratu onerako kontratua» izeneko tailerra izango da,

7

tailer eskainiko ditu datozen asteetan Lilagunek, doan. Aldez aurretik, baina, izena eman beharko da.

15-29

urte arteko gazteei begirako taldeak izango dira osasun mentalari buruzkoak.

non autozainketa eta tratu ona landuko diren. Beste ikastaro batean, «Nire koloreen indarra. Nabigatu zure emozioen kolore» lelopean, parte-hartzaileek pintura erabiliko dute emozioak adierazteko eta horiekaz konektatzeko. Beste tailer batean, argazkigintzaren bidez autoezagutza eta ahalduntzea landuko dituzte. Pelbis dantza ikastaroa ere eskainiko dute, zoru pelbikoa indartzeko asmoz. Beste batean, Txinako Txi Kung praktika tradizionala egingo dute, «arnasketa eta barne alkimia lantzeko». Meditazio tailer bat ere izango da, sormena eta buruko erlaxazioa uztartzen dituen Zentangle metodoagaz. Azkenik, «Plazeraren hirukoa» izeneko ikastaroa egingo dute, eta taburik gabeko sexualitateaz hitz egingo dute emakumeek. ◀

JATA ONDO LANDA GARAPENA

www.uribe.eus/ms

Udagoien landatarrena, Uriben

Familia artean Uribe eskualdeko nekazaritza-ustiategiak eta landa-eremuak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte, urriaren 20ra arte gozagai, euro baten truke.

Jata Ondo Landa Garapen Elkarteak Eko-planen beste edizio bat jarri du martxan udagoien honetarako. Egitasmo horren bidez, familia artean Uribe eskualdeko landa eremua eta nekazaritza ezagutarazi gura dute. Horretarako, eskualdeko ekoizleek euren ustiaketan ateak zabalduko dituzte pare pare horien berri izan gura dutenentzako. Irailaren 21ean ekin zieten bisitak egiteari, baina oraindino badago zertaz gozatu, euro baten truke. Hurrengo txangoan, hilaren 13an, Sollube mendiaren magalean dagoen Arrieta bisitatze-ko aukera izango dute familiek; hilaren 19an, ekonomia zirkularrean trebea den Butroekoako proiektua ezagutuko dute eta, hurrengo egunean, domekan, elikagaiak modu artisauan lantzen duten Iturbaltza, Gamiz-Fikan.



Ustiategiak

- URRIAK 19, zapatua, 12:30-13:30. BUTROEKOAK: Topagunea: Butroe gazteluko aparkalekuan.
- URRIAK 20, domeka, 12:00-13:00. ITTURBALTZA: Topagunea: Ergoien, 121, ezk.

Herrietara bisita gidatuak

- URRIAK 13, domeka, 11:00-12:30. ARRIETA: «Altxor bat gorenean». Distantzia: 3,5 km. Topagunea: Libao bus-geltokian.

«Fabrikaren erosketa publikoa behar dugu»

Stellantis multinazionalak Mecaner lantokia itxi eta 148 behargin kalean utzi ditu; horren aurrean, «Mecaner Herriarentzat» alternatiba ekosoziala sortu dute hainbat eragilek. LAB sindikatuko Iraide Juaristik eta Jauzi Ekosozialeko Aitor Gallastegik azaldu dute zertan datzan.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

2023 irailetik gaur egun arte nola bizi izan duzue Mecaner enpresaren aldeko borroka?

IRAIDE JUARISTI: Hasieratik izan dugu argi Mecaner Stellantis multinazionalaren parte dela, eta ixtearen erabakia berea zela. Azken urteetan irabaziak ematen egon den enpresa bat izan da Mecaner, beraz, itxieraren helburua produkzioa deslokalizatzea izan da. Hala, kontziente izan gara Euskal Herrian dugun araudiak posible egiten duela inongo arrazoi ekonomiko barik EEk egitea. Ondorioz, 148 langileen kaleratzea gertatu da. Hasieratik salatu dugu araudi hori aldatu beharra dagoela, horrelako egoerak etorkizunean errepikatuko direlako. Itxieraren mehatxu batetik etorkizunerako aukera bat sortu nahi izan dugu mugimendu sozial eta ekologistekin batera.

AITOR GALLASTEGI: Proposamen ekosoziala aukera bezala ikusi genuen langile borroka eta ekologismoa elkartzeko, askotan biak kontrajarrira irudikatzen direlako. Izan ere, trantsizio ekologikoa martxan dago, eta ekologismotik ere langileen eskubideak babestu behar ditugu, bi borroka hauek uztartuz trantsizio ekosoziala lortzeko. Stellantisek trantsizioa



«Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ez digu inongo laguntzarik eskaini»

IRAIDE JUARISTI
LAB SINDIKATUA



«Proposamen ekosoziala aukera bezala ikusi genuen, askotan ekologismoa irudi estanko baten moduan sumatzen delako»

AITOR GALLASTEGI
JAUZI EKOSUZIALA

bultzatzeko diru-laguntza handiak jaso dituen arren, langileen proposamenari uko egin eta fabrika ixtea erabaki du, argi utziz trantsizioaren lidergoak duen garrantzia.

Proposamen ekosoziala aurkeztu eta gero ere, Stellantisen erantzun hau espero zenuen?

I.J.: Stellantis Euskal Herri eta Uribe Kostarekin inongo loturarik ez duen multinazional bat da. Berdin zaio produktuak hemen, Txinan edo Turinen ekoitzi. Egia da espero genuela instituzioetatik beste jarrera bat egotea. Bidelagun asko izan ditugu, eta instituzioen partetik eskertzekoa da, adibidez, Urdulizko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak eduki izan duten jarrera. Baina industrian eta ekonomian eskumenak dituzten Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ez digu inongo laguntzarik eskaini. Uste dugu euren ardura politiko horri bizkarra eman diotela eta ez dutela asumitu bere gain zegoen papera.

Itxieraren ostean zein da beharginen egoera?

A. G.: 148 langileak kaleratu dituzte azkenean. Bakoitzak bere egoera propioa bizi du: batzuk beste lan batera joan dira eta beste batzuk langabezia daude edo jubilatzeke zorian.

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Algortako Etorbidea, 76,
48991, Algorta
944 60 90 31



Īnaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41



«Mecaner Herriarentzat» dinamikaren parte dira Juaristi eta Gallastegi. HODEI TORRES

I.J.: Azkenean, kaleratu horiek izen-abizenak dituzte, eta egoera oso larria da. Baina guretzako garrantzitsua da ere mahai-gainean jartzea pertsona horiek kaleratzeaz aparte lanpostu horiek suntsitu dituztela. Etorkizuneko lagunek ez dute sarbiderik izango horietarako eta beste postu prekarioago batzuetara joan beharko dira. Uribe Kostan kalitatezko lanpostuak suntsitzen ari dira.

Zein dinamika hasi duzue orain? A.G.: Beste elkarte batzuekin harremanetan hasi ginen eta borroka soziosindikala delakoa hasi dugu «Mecaner Herriarentzat» dinamika berrian. Helburu nagusia da ekoizpena eta lanpostuak berreskuratzea eta egingo den hori trantsizio ekosozialera bideratuta egotea. Hau da, proposamen produktibo, ekosozial eta justu bat izatea, eskualdearekin eta etorkizuneko benetako beharrekin lotura duena. Horrekin batera, hiru azpi-helburu ditugu: fabri-

Lehentasuna

«Aldez aurretik fabrikaren jabetza publikoa behar dugu, Mecanerren etorkizuna Urdulizen egoteko. Guk planteatzen duguna da erabaki hori prozesu parte-hartzaile baten bidez eta trantsizio ekosozialaren logikan hartzea»

IRAIDE JUARISTI
LAB SINDIKATUA

ka jabetza publikokoa izatea, eta horretarako beharko genuke «Mecaner Herriarentzat»ek zilegizko hizketakideak izatea; gizartea aktibatzea trantsizio ekosozialaren aldeko giro bat sortzeko eta hirugarren hanka litzateke proposamen parte-hartzaile bat zabaltea.

I.J.: Gure baieztapena da jada trantsizioa ematen ari dela kapitalismoaren logika batetik eta Stellantis bezalako multinazionalen gidatuta. Hala, guk nahi dugu benetako trantsizio bat izatea, justua eta jasangarria izango den ehun produktibo bat izateko. Behetik eraikitako trantsizio bat izan behar da, herritarren parte-hartzearekin egindakoa. Lehentasuna fabrika berreskuratzea da, badakigulako Stellantisek Mecaner zena likidatu nahiko duela eta enpresa bera saldu. Mecaner «zabortegi» bat edo beste megaproiektu industrial bat bihurtzea saihesteko guk erosketa publiko bat egotea eskatzen dugu.

Zenbat partaide daude momentu honetan dinamikaren barruan?

I.J.: Langile batzuk, LAB eta ESK sindikatuak, Jauzi eta Gune Ekosoziala eragile ekologistak eta beste eragile batzuk. Eremu instituzionaletik Urdulizko eta Uribe Kostako beste udal batzuen parte-hartzea ere badago.

Beraz, zein esango zenukete dela orain zuen erronka handiena?

I.J.: Esan bezala, aldez aurretik fabrikaren jabetza publikoa behar dugu, gelditzeko Stellantisek eduki ahal dituen plan horiek eta Mecanerren etorkizuna Urdulizen egoteko. Guk planteatzen duguna da erabaki hori prozesu parte-hartzaile baten bidez eta trantsizio ekosozialaren logikan hartzea. Beraz, erosketa publikoa da gure erronka handiena. Horretarako eskumenak dituzten instituzioei, Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, hori exijitzen ari gara. ◀

AINGARA
BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

Ibaiondo, 13 48930 Erromo · GETXO

944 038 953 • www.bordadosaingara.com

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

A person wearing a hat and a jacket is standing in a field, holding a long wooden staff vertically. The person is looking to the right. The background is a clear, light blue sky. The overall tone is calm and natural.

Joy

Imajina ezazu familia biren ama zarela: zure bi seme-alaben zaintza eta gure planetan oraindino aske bizi diren mendiko azken gorilen babesa zure esku dago. Horixe da Joyleen Tugume-ren istorioa, familia eta naturaren zaintza orekatzen dituen emakume ausarta. Aner Etxebarriaren dokumentalak haren bizipen hunkigarriak gurera ekarri ditu orrialdeotara.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIAK: ANER ETXEBARRIA - TONI ESPADAS



Gure planetan aske bizi diren mendiko azken 1.063 goriletatik bederatziren istorioa ekarri digu orriotara Aner Etxebarriak *Joy* (2022, Katz Estudio, Aner Etxebarria, Maitane Carballo eta Toni Espadas) dokumentalaren bitartez. Horretarako, Joyleen Tugeme hartu du protagonista, familia biren ama gisa duen papera orekatzen duena: bata, gizakiez osatutakoa, eta, bestea, basatia, Mgahinga Parke Nazionalako Nyakagezi familiako azken bederatzi gorilena, hain zuzen.



Ruanda, Uganda eta Kongoko mugan dagoen Mgahinga Parke Nazionalako gorilak babesteko bizia arriskatzten duten Basa-bizitzaren Agintaritzako (UWA ingelesez) zaindariatako bat da Joyleen. Animalia horiek zaintzeko erakusten duen grinak eta maitasunak inspiratu zuten Aner Etxebarria emakume horren bizitzari eta kontserbazio-lanari buruzko dokumental bat egitea proposatzera. Joyleenek gorilak bere familiaren partetzat hartzen ditu, eta seme-alabak naturaren errespetuaren eta babesaren balioetan hezten ditu baita ere. Anerrek gogoratzen du parke horretan gorila asko bizi zela antzina, baina gaur egun soilik gelditzen direla Nyakagezi familiako bederatzi kideak.



2021ean, bere laguna zen Toni Espadasen gonbita onartu eta mendiko gorilak dauden parkeetara bisitak egitera joan zen Aner Etxebarria Afrikara. Biek batera, Ugandako Bwindi Baso Zeharkaezina bisitatu zuten, munduko mendiko gorilen erdia baino gehiagoren etxea dena. Une horretan, guztira 1.063 gorila zeuden zenbatuta munduan, eta horietatik 500 inguru Bwindin bizi ziren. Ondoren, Mgahinga Parke Nazionalera joan ziren, Ruanda, Uganda eta Kongoko Errepublikako arteko mugara. Bertan hiru sumendi sakratu daude: Muhabura, Gahinga eta Sabyinyo, guztiak tokiko komunitateentzat garrantzi handikoak. Muhaburak 4.000 metroko altuera gainditzen du, eta haren magalean baso heze bat zabaltzen da banbu basatizko eremu handiakaz nahastuta. Bertan, antzina, mendiko gorila asko bizi ziren; gaur egun, ordea, familia bakarra geratzen da: Nyakagezi familia, bederatzi kide dituena. Gainera, hiru bizkar zilarreztatu daude, talderen batean sartzea lortu ez dutenak eta parkean zehar ibiltzen direnak bakarrik, Nyakagezi familiak egin duen bezala gizakiaren presentziara ohitu gabe. Azken bidaia horretan, parke horretako zaindariatako bat ezagutu zuen Anerrek, Joyleen Tugeme, eta haren historia baliatu du inguru hartako bizitzaren nondik norakoak gureru gerturatzeko.



Dokumentala 30 herrialdetan baino gehiagotan proiektatuta dago, eta, besteak beste, Bilboko Mendi Film jaialdian film-laburrik onenaren saria jaso zuen. Jaialdi horri esker, gainera, Joyk gurera etortzeko aukera izan zuen, talde osoa ezagutu eta bere errealitatea hemengo herritarrei zuzenean azaldu ahal izateko. Hala ere, Aner Etxebarriak deitoratzen du estreinaldiaren ostean dena ez dela gozoa izan. Izan ere, 2024ko maiatzean, dokumentalaren oinarrietako bat izan zen Toni Espadas, bere laguna, hil zuten tirokatuta. Gogoratzen duenez, Tonik 25 urtez lan egin zuen Etiopian eta funtsezkoa izan zen film laburra ekoizteko, kontaktuak eta filmatzeko baimenak erraztuz. Ezbeharraren egunean, Txileko telebista-saio batean ari zen lanean. Haren gogoan, Afrikarekiko maitasunari eta natura zaintzeko zuen grinari omenaldia da proiektu hau, Etxebarriak dioenez.



Joy da Mgahinga Parke Nazionalen lan egiten duen emakume bakarrenetarikoa bat, eta oihanean esplorazioak egiten zituen gainontzeko zaindariakaz batera –gainontzeko guztiak gizonak– gorilak babesteko. «Zoritxarrez, oraindino ohituta gaude pentsatzera mota honetako lanak soilik gizonek egiten dituztela, eta hauxe adibide polita eta eredugarria izan da erakusteko eurak ere gai direla edozein lan egiteko», azpimarratzen du Aner Etxebarriak. Are, zeregin horiek dakartzaten erronka fisikoak eta arriskuak gorabehera, bere lankideek errespetu handia dioten pertsona da Joy. Errespetatu ez ezik, taldean lidergo-gaitasuna duen pertsona da.





Lasy Philis *Draga*

«Trabesti jaio nintzen, *draga* beti egon da nirekin»

Ekainaren 21ean Lasy Philisek aurreneko publikoa izan zuen parez pare: oholtzara igo eta Bilbao Bizkaia Prideko Drag 2024 galako irabazle izan zen. Orduetik ez da gelditu, eta Erandioko San Agustin jaietako pregoia emateko ohorea izan zuen. Beragaz hitz egin dugu *drag* izatearen sentimenduz, baita identitate ez-bitar gisa bizi izandako zailtasun eta buruhausteez ere.

TESTUAK: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIAK: TATIANA SEBASTIAN ►

Zer da *drag* izatea zuretzako? Nik nire burua ikusten dut *drag* moduan, ez dut *draga* egiten, ni naiz *drag*. Definizio ofizialaren arabera, generoaren edo pertsona baten performancea da. Baina niretzako *drag* izatea eta egitea nire alderdi artistiko guztia ateratzea eta muturrera eramatea da. Nahi duzuna egitea, horretarako eraikitzen ari zarela zuretzako pertsonaia seguru bat den hori: zure *ni* mundutarra adierazteko prest ez dagoena *drag*aren bidez adierazteko. Ilordea, makillajea eta takoiak janzten ditudanean, dudan nortasun guztia ateratzen da kanpora. Nire segurtasun falta guztiak alde batera utzi eta Yerai bezala sentitzen ez dudan botere bat sentitzen dut. *Draga* izatea arma bat da, defentsarako eta sorkuntzarako, zure buruarekiko maitasunerako. Artea eta espresioa ez ezik, *draga* politikoa ere bada. Izan ere, nik bide horretatik adierazi eta defenda dezaket *queer* mugimendu guztia.

Nor da Lasy Philis? Galdera ona, kar-kar. Nik Lasy sortu nuen protestatzeko. Oso lotsagabea eta borrokalaria da. Askok gustatzen zaio zaurietan arakatzea. Ez nuke esango emakumea denik, ez baita nire helburua pertsonaia femenino bat gorpuztea. Halere, «montatzen» naizen bakoitzean konturatzen naiz panpina txo bat dela. Gainera, oso lizuna da, nire alderik sentsualena ateratzen du. Lasy sortu

Glosarioa

Drag

Genero-rolakaz jolastuz sortutako adierazpen artistikoa. Performancea, makillajea eta musika bezalako elementuak nahastu ohi ditu.

Queer

Bitxia edo arraroa esan gura zuen ingelesezko irain bat zen jatorrian, XVIII. mendean sorturikoa. Egun, *queer* teoriak gizabanakoa bere genero identitateagatik edo orientazio sexualagatik sailkatzea errefusatzen du, sexu-genero sistema osoa zalantzan jarriz.

Montatzea

Draga karakterizatzea, adibidez, makillajea erabilita.

Ez-bitarra

Genero binarismotik (emakumea-gizona) kanpo dagoen genero identitatea.

nuenean, pertsona bat pertsonifikatzea baino gehiago kontzeptuetan pentsatu nuen.

Lehen aldiz, Lasy Philis aurkeztu duzu Bilbao Bizkaia Prideko 2024 Drag galan, eta horren irabazle izan zara. Nola bizi zenuen?

Bai, uda honetan jaio da Lasy; 4 hilabeteko bizitza du soilik, kar-kar. Yerai gisa, 10 urte daramatzat dantzan, eta oholtzara igotzean, ez nintzen batere urduri sentitu. Izan ere, Yerai bezala igotzen naizenean ere pieza bat eta istorio bat antzetzten dut. Halere, desberdina izan da, Lasy bezala bakarrik igo naitzelako. Esango nuke oso naturala izan dela. Shock handia izan dut jaso dudan maitasun eta *feedback* positibo guztiarengatik. Niretzat hau izan da *draga* egiteko gai naizela baieztatzea. Azkenean, asko kostatu zait pausoa ematea, aspalditik egin nahi nuen zerbait zelako. Hala ere, nik uste trabesti jaio nintzela, *draga* nirekin egon da beti. Lasy nirekin jaio da, kostatu dena izan da moldatzea. Hasteko une eta leku egokiak behar izan ditut soilik.

Zeintzuk ziren zure beldurrak? *Drag* mundua oso gogorra izan daiteke. *Drag*-mota baten ideia dago. «Mutila» izanda ez baduzu «emakume» zis-genero bat ematen, ez zara *draga* egiten ari. Hasteko, ni ez-bitarra naizenez, oinarritik ari naiz generoa pertformatzen. Niretzat *draga* ez da jaiotzean ezarri zai-

dan kontrako generoa gorpuztea, baizik eta generoa berarekin esperimentatzea; rolekin eta genero-binarismoarekin jolastea. *Dragak* aukera ematen digu gure buruari uzten ez diogun hori askatzeko.

Buruhauste asko izan dituzu Lasy sortzeko momentuan pertsona ez-bitar gisa identifikatuta? Bai; eztabaida handia dut oraindik. Duela «gutxi» ezagutu dugu zer den ez-bitarra izatea, eta binarismo ezak generoaren definizioa zabaltzen du, bide emanez femeninoa eta maskulinoa ez diren beste gauza batzuekin esperimentatzeko. Niretzako lana izan da txikitatik agindu didaten mutil-kaxa horretatik desintoxikatzea eta neska-kutxan ez sartzea. Eroso sentitzen naiz emakumeen izenordainekin, baina jendeari azaldu behar diot ez naizela neska bat, eta horrek nahasmen handia sortzen du. Beraz, etengabeko deseraikuntza da. Nik ikusten dut mutilentzat eta neskentzat arau desberdinak ezartzen dituela gizarteak; orduan, nik gehien gustatzen zaizkidan eta identifikatzen nauten gauzak hartzen ditut batetik eta bestetik. *Dragean* askatasun handia dagoen arren, sistema patriarkal, bitar, transfobo eta sexista batean bizi gara. Genero batean ala bestean egokitu behar izateko presioak bere horretan jarraitzen du.

Uste duzu gizarteak apurka-apurka ulertzen duela ez-bitartasuna? Oraindik asko geratzen da. Jendea orain hasi da trans errealitateak ulertzen bitartasunaren barruan. Eredu bitarretik kanpo super gustura dagoen pertsona batek nahasmen handia sortzen dio jendeari. Etengabeko borroka da zure existentzia zuzitzeko. Horretan, Lasyk asko laguntzen dit. Berak ez du generoa ulertzen, estralurtarra da. 4 hilabeteko bizitza du eta oraingoz panpina bat dirudi, baina horrekin esperimentatu nahi dut. Jendeak Lasy ikustea eta «hau zer da?» pentsatzea nahi dut. Hori da nire helburua. Horretarako, asko laguntzen dit genero bat gorpuzten ez duten *dragak* ezagutzea; adibidez, ardi bat edo pailazo baten ideia formatzen dituztenak.

Nolakoak dira zure showak? Dantzaria naiz, eta Lasy tresna bat ere izan da denbora luzez pentsatu izan ditudan piezak sortzeko. Dantza-talde batekin, oholta batean ezin dut nahi dudan guztia egin, baina Lasyrekin erokeria horiek guztiak egiteko aukera dut. Beti bilatzen dut egiten ditudan pieza guztiek euren alde aldarrikatzailea izatea. Horregatik, Lasy bozgorailu garrantzitsu bat da Yerairentzako.



«Eroso sentitzen naiz emakumeen izenordainekin, baina jendeari azaldu behar diot ez naizela neska bat, eta horrek nahasmen handia sortzen du. *Dragean* askatasun handia dagoen arren, sistema patriarkal, bitar, transfobo eta sexista batean bizi gara. Genero batean ala bestean egokitu behar izateko presioak bere horretan jarraitzen du»

LASY PHILIS
DRAGA

Aurten, Erandioko San Agustin jaietan pregoia irakurri duzu. Nola bizi izan duzu momentu hori? 10 urteko Yeraik ez zukeen inoiz hori imajinatuko. Nire herriaren aurrean egon nintzen diskurtso aldarrikatzaile bat irakurtzen eta lekua pertsona ez-bitar eta *drag* gisa okupatzen. Ez dakit zenbat trabestik irakurri duten pregoia udalerrri batean, baina uste dut gertatutakoa historikoa izan dela. Oraindik prozesatzen ari naiz horra igo nintzela naizen trabesti puska gisa. Hala ere, presio handiarekin ere bizi izan dut. Askok gertatzen zaie gutxiengoaren taldeei: mutil heterosexual eta zis bat igotzen bada, inork ez dio ezer exijituko. Baina ni hautatu nindutenean jendea berehala hasi zitzaidan galdetzen: «Gutxiengo honengatik zer esango duzu? Palestinagatik zerbait esatea pentsatu duzu?». Zergatik politizatu behar duzu? Hasiera batean, nik hitzaldi dibertigarri bat soilik eman nahi nuen. Baina Lasy hautaketan atera zenean pregoilari izateko, Internet bidez eraso transfoboak izaten hasi nintzen. Orduan erabaki nuen erantzun bat eman behar nuela.



Lasy Philis Bilbao Bizkaia Prideko 2024 Drag galako irabazlea izan da.

Noren parteko erasoak izan ziren? Erandio-ko kuadrilla baten eraso publikoak izan ziren, Instagram bidezkoak. Hasiera batean, herriaren aldetik esku hartu nahi izan zen, baina azkenean ezer ez egitea erabaki zen. Lotsagarria da, pertsona horiek ez didatela-ko niri bakarrik eraso egin, lehenago beste hainbat pertsonaren kontra ere jo dute. Beraz, gertatutakoak ikasteko balio behar du, berriro gertatzen bada, beste bide batzuetatik joaten jakiteko. Izan ere, pregoiaren egunean pertsona horiek bertan zeuden. Hala ere, nik, Lasy bezala, botere handia sentitu nuen. Bertan nengoen pregoia irakurtzen eta ez zuten ezer esan. Egia esan, komentario horiek berdin zaizkit, 27 urte baitira horrelako iruzkinak aguantatzen. Haien Interneteko iskei esker, jendeak bozka gehiago eman zizkidan pregoilaria izateko, eta euren erasoek emanaldietarako ideiak eman zizkidaten. Gainera, bizi izan dudak gauzarik politenetako bat Erandioko adineko emakumeen aldetik jaso nituen mezuak entzutea izan da: «Eskerrik asko hor egoteagatik, gutako asko ordezkatu

«Bizi izan dudak gauzarik politenetako bat Erandioko adineko emakumeen aldetik jaso nituen mezuak entzutea izan da: 'Eskerrik asko hor egoteagatik, gutako asko ordezkatu gaituzulako'. Emakume horiek pertsona disidente batek emandako mezuan islatuta sentitzea irabaztea da niretzako»

LASY PHILIS
DRAGA

gaituzulako». Emakume horiek pertsona disidente batek emandako mezuan islatuta sentitzea irabaztea da niretzako.

Gaur egun, erasoak jasotzen dituzu kale-tik? Bai, noski. Makillatuta doan marikoi bat naiz, bitarra ez den trabesti bat, arauz kanpoko pertsona bat. Gay kanonikoa banintz, ez nituzke eraso berberak jasoko. Baina ikusten duzu nola noan jantzita: gona batekin, ate bat bezala margotuta, ile luzearekin eta ulertzen ez duten zerbait gorpuzten... Iruzkina asko jasotzen ditut. Hala ere, gehienbat ez dira hitzeko erasoak, begiradak baizik. Askotan ohartu naiz grabatu egiten nautela eta ahapeka nitaz hitz egiten dutela. Gurasoek hurrei ematen dizkieten erantzunak ere lotsagarriak dira. Baina urteekin geruza bat sortzen duzu. Oso gutxitan eragiten dit iruzkin batek.

Zer esango zenioke dragean hasi gura baina beldurra ematen dion norbaiti? Hasteko, bere buruari denbora emateko. Pertsona horrek erabaki behar du noiz eta non egin. Nik 27 urte ditut, baina kontzientzia dudanetik amestu dut honekin, eta orain egin dut. Baina hastearren erabakia gauza askoren mende dago: zure familia, bizi zaren lekua, dituzun baliabideak, duzun kultura, LGTBQ+ munduarekin duzun konexioa... Lekua, denbora eta maitasuna eman behar zaio erabaki horri. Esango nieke, batez ere, sortzeko beldurrik ez izateko, izan ere, ez dago araurik. Berdin dio makillatzen bazara ala ez. Garrantzitsuena da sortzen duzun pertsonaia eta atzean dagoen ideia. Huts egiteko eta ideia hori esperimentatzeko lekua behar da. Esango nieke ere *queer* mugimendutik elikatzeke. Eta iruzkin hau hutsala dirudien arren, esango nieke ez izateko beldurrik nahi duten eran izateko. Lasyk Yeraik barruan daraman guztia azaleratzen du, eta muturrera eramaten du.

Zerbait gehiago gehitu gura duzu? Ez da ahaztu behar *draga* politika dela eta oso bozgorailu ona dela gauzak salatzeke. Hala ere, ez gaude behartuta banderapean guztia hartzera eta gure borroka etengabe argi eta garbi adieraztera. Era berean, jendea animatu nahi dut bere auzoko *drag* emanaldiak ikustera joateko. Izan ere, gauza asko ditugu eskaintzeko eta oso «tipa» dibertigarriak gara. Gaur egun, estigma handia dago oraindik ere *drag*aren inguruan, baina errealitatea da publiko guztientzako garelako: umeak, helduak, nagusiak... Horregatik, jendea animatu nahi dut tokiko *drag*aren aldeko apustua egin dezaten, askotan ez zaigulako merezi dugun ikusgarritasuna eta tokia ematen. ◀

Urria-azaroa

Barrika

Urriak 19, zapatua

III. Emakumeen Hitza Topaketa

11:00 | Emakumeen Hitza elkarte

Antzerkia, mahai-ingurua eta hamaiketako.

Urriak 25, barikua

Ludoteka: Arimen gaua

18:00 | Liburutegian

Izenemateak telefonoz zein emailaz: 946 775 163 edo liburutegia@barrika.eus.

Urriak 31, eguena

Barrikako IV. Arimen Gaua

18:00 | Ander Deuna Aretoan

Ipuin-kontaketa, ginkana eta photocall.

Berango

Urriak 12, zapatua

XXXVI. Nazioarteko Milia

16:00 | Gobelalde kalean

Berangoko kirol-probarik entzutetsuena.

Urriak 18, barikua

Dantza: Hahatay elkarte

19:30 | Berango Antzokian

Senegaleko musika eta dantza, Otxandategi Dantza Taldearen laguntzagaz.

Erandio

Urriak 20, domeka

Dantzari Txiki Eguna

Irailaren 23a plazan

Uztargi Dantza Taldeak antolatuta.

Urriak 26, zapatua

Zutik! jaialdia

Josu Murueta plazan

Berdintasunaren aldeko festibala.

Urriak 31, eguena

Arimen Gaua

Auzoetako elkarteek hamaika proposamen antolatuko dituzte gau berezi horretarako.

Getxo

Urriaren 3tik 24ra

Getxo Eszena

Muxikebarrin

Arte eszenikoaren hainbat artista bilduko dituen jaialdiaren 42. edizioa.

Urriak 19, zapatua

Kontzertua: OhBrother!

20:00 | Utopian

Country Rock musika.

Urriak 19, zapatua

Porrotx eta Marimotots:

Ez gara jaitsiko!

16:30 eta 19:00 | Muxikebarrin

Hemen dira pailazoak!

Urriaren 23an eta 24an

Ramiro Pinilla Nazioarteko

Kongresua 2024

Muxikebarrin

Idazlearen hainbat aditu bilduko dituen topaketa.

Urriak 26, zapatua

25. Indabada

Algortako San Nikolas plazan, eta inguruetan.

Urteroko baba-janerako eta aldarrikapenerako zita.

Azaroak 15, barikua

Bihotza Gazte bertso-saioa

20:30 | Azebarrin

Bertsolariak: Josu Landeta, Xabier Arriaga Txiplas, Haira Aizpurua eta Xabat Ilarregi.

Gorliz

Urriak 17, eguena

Hitzaldia: Itsasoko bideak eta itsasoko paisaiak

19:00 | Udaletxean

Ondarearen Europa Jardunaldietako jarduera.

Urriaren 25etik 27ra

Dastatu urria

Ibarreta plazan

Pintxo-lehiaketa, eskualdeko garagardoak, musika, tailer gastronomikoak, mikologia...

Urriak 31, eguena

Gau Baltza

16:30 | Ibarreta plazan

Publiko guztientzako ekintzak.

Leioa

Urriaren 11tik azaroaren 10era

Arte erakusketa

Kultur Leioan

Angel Garrido eta JM Mendezen pinturak.

Urriak 15, martitzena

Film Sozialak jaialdia 2024

11:30 | Leioako campusean

Bilboko zinema ikusezinaren nazioarteko jaialdiaren 16. edizioko proiektzioa.

Urriak 20, domeka

Antzerkia: Batetik bestera

18:00 | Kultur Leioan

Umeei eta helduei zuzendutako proposamena.

Lemoiz

Urriaren 17tik 20ra

Santo Tomas jaiak

Armintzan

Egitaraua, hiruka.eus atarian.

Urriak 31, eguena

Lemoizko Gau Beltza

19:00 | Armintzako frontoian

Diskofesta eta txokolatada.

Plentzia

Urriaren 17tik 19ra

Lanbro Beltza XII. Topaketak

Goñi Portalen

Nobela beltzari buruzko jaialdiaren edizio berri bat: mahai-inguruak, hitzaldiak...

Urriak 20, domeka

Plentzia Truk azoka

11:00 | Ontziola plazan

Urriak 20, domeka

Bisita gidatua: Plentziako

historian zehar nabigatu

11:00

Itsasadarrean zehar itsasontzian egingo den txangoa. Izen-emateak: turismo bulegoan.

Sopela

Urriak 18, barikua

Antzerkia: Posdatarik gabeko gutunak

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Helduentzako antzerkia.

Urriak 25, eguena

Antzerkia: Hegoak

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Helduentzako antzerki musikala.

Urriak 31, eguena

Sopelako Arimen Gaua

18:30 | Kurtzio kultur etxean

Izuaren pasartea eta beste asko.

Urduliz

Urriaren 14tik 26ra

Erakusketa: grabatu artistikoak

Urdulizko kultur etxean

Hainbat artisten lanak, ikusgai.

Urriaren 24tik 27ra

Jardunaldi Mikologikoak

Antsonekoa plazan eta kultur etxean

Belatztgorri Mendi Klubak antolatutako jarduerak.


Lehen/Orain **Lamiako**



ITURRIA: NICK LEIOA BLOGA



Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA

Aitor Fernandez
de Martikorena
Rodriguez

DOINUA

Itsasoari begira

ARGAZKIA

Hodei Torres

Jare baino, nare

*Leiho batean, kanpoaldean,
loreontzi bat bakarrik.
Mendi-basoak, bide-larreak...
inguruan denetarik.
Mundua dago haren aurrean,
badu ezeren faltarik?
Toki polita, bukolikoa,
ezelango duda barik.
Baina loreak ez dauka, berez,
mugitzeko aukerarik.*

*Norbaitek, ziur, ipini zuen
asmo onez hor hegian,
euri-tantekin berdatu zedin,
ura behar zuen egian!
Guri ere usu pasatu zaigu
lauso edo agerian:
bestek esaten digute guri
zer egin bizialdian...
Ez dugu izaten modurik geure
kabuz jartzeko abian.*

*Pertsona batzuk izaten dira
(edo gara) horren pare:
eroso bizi nahi dugu gure
barruan, atera gabe.
Ohiko ditugu mila isiltasun,
ehunka milioi bakardade.
Alta aukera egin genuen:
gurago dugu izan nare,
parada joan zen bihur gintezen
bititza honetan jare.*

Jone Ibarretxe eta Nere Falagan *Esto no es Hollywood* dokumentala

«*Bilbollywood* batekin amestu zuten hiru zinemazale izan ziren Ibarretxe anaiak»

IKER RINCON MORENO ▶

Azken urteotan ohikoa bilakatu da gure kaleetan zinemarako kamerak eta fokuak ikustea, telesailen bat edo filmaren bat grabatzen. 80ko eta 90eko hamarkadetan, aldiz, ez zen horren arrunta, nahiz eta zinemagile ausart batzuek Bilbo agertoki erraldoi bat bihurtu gura izan zuten. Horiek izan ziren Ibarretxe anaiak, eta horien historia bildu dute Jone Ibarretxe, anaietako baten alabak, eta Nere Falaganek. Bata getxoztarra, eta bestea sopoloztarra, *Esto no es Hollywood* izeneko dokumentala ondu dute, eta aurtengo Zinemaldian aurkeztu zuten, Zinemira sailean.

Ibarretxe anaien historiari erreposoa egin diozue dokumentalean; Jone, zelakoa izan da zure familiari buruzko lan bat egitea? JONE IBARRETXE: Ez da erraza izan, taldea eta familiaren laguntza ezinbestekoa izan da. Asko lagundu didate eta, parte emozionalak landu ditugunean, oso babestuta sentitu naiz.

Nortzuk ziren, bada, Ibarretxe anaiak, eta zergatik ziren ezagunak? NERE FALAGAN: 80ko hamarkadaren amaieratik 2012 urtera arte zinema egiten zuten hiru anaia ziren Esteban, Josemi eta Javi. Beren belaunaldiko eta bertoko beste zinemagileekin alderatuta, horiek beti aldarrikatu zuten Bilbo agertoki bezala. *Bilbollywood* batekin amestu zuten hiru zinemazale sutsuak ditugu Ibarretxe anaiak. Eta filmografia handia ez badute ere, beren proiektu guztiak anbiziotsuak izan ziren, batez ere *Sabotage!*. Esan daiteke beren zineman genero nahasketa handia dagoela. Bada, fantasia, historia eta umorea era bikain batean uztartzen zituzten.

Beren garaian ez zen gaur egun beste zinema egiten. Hori dela eta, esan dezakegu aitzindariak izan zirela Euskal Herrian, bai aipatutako genero nahasketa hori egiteagatik, baita Bilbon errodatzeagatik ere.

Sorpresarik topatu duzue egindako lanean? Hau da, aurretik ezegunak zenituzten gauzak ezagutzeko aukera izan duzue? J. I.: Bidaia polita izan da; beraien pelikulak berriz ikusi ditut heldutasunetik, eta horrek beste ikuspuntu bat eman dit. Izan ere, nire aita eta



Zinemagile biek azpimarratu dute «tandem ona» osatu dutela lanean. HODEI TORRES

Aurkezpena, Zinemaldian

«Ohore handia izan da Zinemaldian egotea. Opari bat. Gainera, berotasun handia jaso genuen aurkezpen-egunean, harrera ona izan du egindako lanak. Zinemaldia bezalako erakusleibo batean gure dokumentala aurkeztu ahal izatea izugarria izan da guretzat»

osabak pertsonaia eta istorio guztietan ikusi ditut. Beraien pelikuletan bizirik daude.

Anaien argiak eta itzalak ezagutarazteko lana izan dela esan duzue inoiz. Zeintzuk dira «argiak» eta zeintzuk «itzalak»? N. F.: Filma omenaldi bat da ere; hasieratik oso argi izan genuen Ibarretxe anaiak modu gizatiar batean irudikatu nahi genituela. Horregatik, itzalak ere erakutsi behar genituen, gehiegi sakondu gabe.

Argiek haien izaerarekin zerikusi handia dute: sormen handikoak zirela erakusten dugu, ekoizpen lan ona egin zutela, barregarriak eta alaiak zirela... Itzalei dagokienez, besteak beste, diruarekin zuten harremanari buruz mintzatzen garenean murgiltzen gara, baita alkohola aipatzen dugunean ere.

Hau ez da Hollywood, *Bilbollywood* baizik. Zer zen, zehazki, garaiko Bilbo hura? N. F.: 90eko hamarkadan oso zinema gutxi egiten zen Bilbon. Ez zegoen industriarik. Oso produkzio-etxe gutxi zeuden, eta zinemagile gehienak Madrilera joaten ziren. Zaila zen garai hartan zinema egitea; garestia zen, oso. Beraz, urte horietan zinema egiten zuena pribilegiatu bat zen. ◀

Kepa Dieguez Barahona *Eguraldiaren euskara. Aro-bidaia Euskal Herrian barrena* liburua «Izugarri aberatsa da gure herri-lexikoa eguraldiari dagokionez»

IKER RINCON MORENO ▶

Euskal Herriko eguraldiaren hizkera baten duen liburua argitaratu du Kepa Dieguez Barahonak: *Eguraldiaren euskara. Aro-bidaia Euskal Herrian barrena*. Gurean eguraldiari erreferentzia egiteko euskaraz jasota dagoen herri-lexikoa batu eta aztertu du 20 urtez, eta hori guztia jaso zuen 2021ean aurkeztu zuen doktorego tesian; emaitza: hizkuntza baten lexiko etnometeorologiko guztiaren azterketa, ordurako munduan izan den lehenengoa. Horretan oinarrituta, liburua idatzi du, jasotako informazio guztia gizarteratzeko modu didaktiko batean.

Defini ezazu, hitz gutxitan, liburua. Eguraldiari buruzko «road movie» moduko bat da. Protagonista aro-bidaiari bat da, herriz herri hitzak, esapideak eta kontu meteorologikoak biltzen dabilena. Kontakizun bat da, baina, aldi berean, saiakera, helburua eguraldiari buruzko lexikoa zabaltzea baita. 96 herritan barrena egiten du bidea, Getxotik Eskiulara (Bearnoko herri euskalduna).

Eguraldiari dagozkion hitzak eta esamoldeak asko aldatzen dira herri batetik bestera? Bai, eskualde desberdinak direnean batez ere. Herri bakoitzak bere lexikoa du, eta askotan oso hitz lokalak erabiltzen dira, oso kontu itxiak izaten dira.

Fenomeno meteorologiko batzuk ere leku zehatz batzuetan bakarrik gertatzen dira, ezta? Bai, edo modu ezberdinetan ikusten dituzte. Esaterako, enbata hitza. Kostaldean enbata, galerna edo galarrena esaten zaio fenomeno horri, baina barrualdean ez dute hori horrenbeste nabaritzen, eta haienzako haize-aldaketa txiki bat izango da, freskoa ekartzen duen horietako bat, besterik ez.

Euskalkiek ere eragina dute izendapen horietan? Ikaragarri. Tesirako 6.000 hitz inguru bildu nituen eguraldiaren inguruan, eta 4.300 inguru aztertu. Euskalkien arteko desberdintasuna agerikoa da, baina batasuna ere badago kontzeptuetan, nahiz eta izendapenak desberdinak izan. Adibidez, Gipuzkoan eta Zuberoan berdin ikusten dute kontzeptu bat, horri deitzeko modua berdina ez izan arren.



Liburuan eguraldiaren lexikoaren oparotasuna erakutsi gura izan du Dieguezek.

Esamoldeen garrantzia
«Mendetan zehar egindako behaketak eta esperientziak islatu dira hizkuntzan, eta horrek gure kultura eta izaera definitzen ditu»

Adibidez, Kortezubin (Bizkaia) kuku izerdia erabiltzen dute euri mehe-meheari deitzeko, eta Oñatin (Gipuzkoa), aldiz, azeriak bustitzeko euria. Erabilera guztiz antropologikoak dira horiek, lehenengoak esan nahi duelako kukuak alfer hutsak direla, eta hartara euri horrek apenas ez duelako lurra bustitzen; bigarrenaren kasuan, azeriek gorroto dutelako bustitzea, eta euri-mota horrekin ez direlako konturatzen bustitzen ari direla.

Herrietan metaforak edo irudiak erabiltzen dituzte gauzak izendatzeko, eta horrek izugarriko lotura dauka gure herriko kulturarekin.

Eguraldiari lotutako saioetan, telebistan kalkoak edo asmatutako hitzak erabiltzen dituzte ala gureak erabili egiten dira? Oro har, ondo erabiltzen da, baina hiztegia oso murrizta da eta egia da kalko asko egiten direla eta interferentzia handia dagoela. Adibidez, «zerua urdin dago» esatea kalko hutsa da; euskaraz oskarbi edo garbi dago da egokia. Urdin esatea, Ipar Euskal Herrian eta ekialdeko euskalkietan lainotuta dagoela esateko erabiltzen da, hartara, kontrakoa esaten ari gara.

Herri-lexikoa erabili beharko genuke iragarpenak atseginagoak egiteko; beti erabiltzen dira lau gauza, eta gure lexikoa izugarri aberatsa da. ◀



Irakurri ezazu elkarriketa osoa www.hiruka.eus webgunean edo goiko QR kodigoa eskaneatuta.

Jenaratxu parkea Algortako Portu Zaharra



Abrari begira, Jenaratxu parkea dugu Portu Zaharrean; leku pribilegiatua, gaur egungoentzat zein antzinakoentzat. Izan ere, gerraostean, auzokideek Udalaren jabetzakoa zen inguru hori baliatu zuen ortuak, oilotokiak eta untxitegiak jartzeko. Horietako bat izan zen Jenara, Gualberto Royo auzokidearen birramona. Honek gogoratzen duenez, hura izan zen goseteak jo zuen garai hartan etxera jatekoren bat eramateko ortu txiki batzuk sortu zituen aitzindarietako bat, «beste hainbat emakumegaz batera». Garai haietan ez zegoen askorik jateko, eta emakume-talde batek pentsatu zuen parkearen ingurua leku ona izan zitekeela ortuak egiteko, eta baita oiloak edo untxiak hazteko kaiolak jartzeko ere. Gaur egun, azken horien egituren aztarnak topa daitezke harearritzko hormetan. Urteen poderioz, nekazaritza-izaera atzean utzi eta aisi-gune bihurtu da. Izenari dagokionez, Royok gogoratzen du bere izekok, Jenararen alabak, proposatu zuela amaren izena jartzea parkeari, emakume haien omenez, eta Udalak onartu zuela; 40 urte igaro dira ordutik. ◀



mendian



gurasoekin

Eta euskaraz egiten badugu?



jolasean



josten

ERANDIO 621 270 546 GETXO 619 935 541

Eman izena!



 **berbalaguna**





URRIAK 18 OCTUBRE
Auditorium // 20:30 // 10 €

MAL DE CORAÇON
Companyia Solitària / TNC (Cataluña)



AZAROAK 8 NOVIEMBRE
Auditorium // 20:30 // 10 €

TU-TUM, PLATZ! (JON PLAZAOLA)
Txalo Produkzioak (Euskadi)



URRIAK 20 OCTUBRE
Auditorium // 18:00 // 6 €

BATETIK BESTERA: KONZERTUA
Benetan be (Euskadi)



AZAROAK 15 NOVIEMBRE
Auditorium // 20:30 // 10 €

MUSIKALA ETA ROCK SINFONIKOA
Bilboko Ganbera Abesbatza eta Orkestra (Euskadi)



AZAROAK 22 NOVIEMBRE
Auditorium // 20:30 // 10 €

EL DILEMA DEL CORCHO
Tartean Teatroa (Euskadi)



© Pío Ortiz de Pinedo

25 urte besterik ez

JON LOPEZ SAEZ Prestatzailea



Ez nuke nire burua aspaldiko entziklopedia-saltzaile horietako bat bezala aurkeztu nahi, baina Leioa Waterpolok urte-kopuru potolo horietako bat betetzen du aurten, eta ez nuen horren berri emateko aukera galdu nahi. Barkaidazue autopromo tarte hau, baina Leioa Waterpoloren 25. urteurrenari buruz hitz egitea merezi duela uste dut.

Izan ere, ospakizunak beti izaten dira une egokiak atzera begiratzeko, ordura arte egindakoak erreparatzeko eta emozio eta harrotasun-puntu batekin ibilitako bideak gogoratzeko. Eta harro gaude, batez ere, Leioako gazteei urte luzez toki seguru bat eman zaielako, bertan kirola egiteko eta nortasuna garatzeko aukera emanda.

Baina data biribilek aurrera begiratzeko ere balio dute. Eta horretan jarri nahi dut azpimarra. Etorkizunerako desio-eskaera horretan, nahiko nuke Leioa Waterpolo leioaztarrentzako erreferente izaten jarraitzea, eta Leioako ume eta nerabeentzako gune seguru eta erosoaz itzatea. Eta horiek, mundu gero eta nahasiago eta bortitzago honetan, ez dira erronka makalak.

Hortaz, hurrengo 25 urteetan umeak eta nerabeak erdigunean jar ditzagun; eta senti dezatela mundua, baloi eta igerileku baten bueltan askoz politagoa dela. Goazen, ba!

GEST

ITXASO PAYA RUIZ Sortzailea



Ramiro Pinilla, Antonio Basagoiti, Evaristo de Churrua y Brunet, Andres Isasi... Getxoko kulturari lotutako izenak dira. Getxoko kaleen izenak dira, eraikinenak, monumentuenak, ibilbideenak... Guztiak gizonetzkoen izenak dira. Kasualitatea? Zertan ariko ziren emakumeak kale hauei izenak jarri zizkiotenean? Zergatik ez dago hauen izenik duen jauregi edo enparantzarik?

Historia gizonetzkoen idatzi zuten, eta hori baino ez da: gizonetzkoen idatzitako historia bat. Gu, emakumeok, sorginak izan gara betidanik. Sortzaileak. Sortzen dutenak. Dantzariak, musikariak, antzezleak, idazleak, artistak... Nork ez ditu bizitza osoan hain presente eta erreferente izan dituen emakumeak oroitzen? Niri behintzat izen asko datorkit burura: Jone Gonzalez, Mariasun Yanguas, Maite Mentxaka, Olatz Ganboa, Irantzu Garamendi, Araitz Lasa, Izaro Ieregi, Iriondotar ahizpak, Lur Piris...

Baina izen horiek ez dira marmolezko hormetan idatzi. Zergatik? Erantzun batzuk okurrizten zaizkit. Izan horiek ez dira marmolezko hormetan idatzi momentuz. Momentuz, izen horiek GESTen kartelean idatzi ditugu eta oholta ganean egongo dira elkarrekin azaroaren 9an, Muxikebarrin, Getxoko Emakume Sortzaileen Topaketan. Zatoz!

Horoskopia



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Automatismoan harrapatuta zaude, beti leku batetik bestera, arineketan. Ez bazara gelditzen, zure gorputzak egingo du.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Hainbeste min eta gero, ernaltzeko garaia heldu zaizu. Inguruan maite zaituzten bidelagun asko dituzu, utzi zure ulua aske!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Gustuko duzun pertsonaren Instagram profila-gaz obsesinatuta zaude. Ez duzu ba irakurri hemen ere ligatzen dela? Eman lehen pausoa!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Sormentsua zara oso, baina zure testuinguruak ez dizu zure barneko mundu guztia askatzen uzten. Zer aldatu dezakezu? Zuk soilik dakizu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Baikorra izatea ona da, baina batzuetan zure fantasien munduan galtzen zara. Lurra eta zeruaren arteko orekan dago koska.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ez dituzu kritikak ondo hartzen. Bai, onar ezazu, hala da. Besteengan hain argi ikusten dizuna zugar ere dago. Animo horregaz.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Nerabezaroko pelikula txar horiek berrikusteko garaia heldu da! Hartu palomita batzuk eta gozatu egun euritsuaz.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Besteakaz behin eta berriro alderatu beharrean hausnartu zeintzuk diren zure barneko gabeziak. Zoriontsuagoa izango zara.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Oporretatik bueltatu eta daborduko hurrengo bidaia antolatzen zabilta. Errutinak badu bere xarma, «erromantizatu» zure bizitza (apur bat).



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Beldurra ematen dizu zaugarri erakustea? Ongi etorri klubera! Hala ere, konexiorik onenak ahul gaudenean eraikitzen ditugu.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Lagun horrek zure muga guztiak igaro ditu. Beragaz hitz egiteko ordua heldu da, nahiz eta elkarriketa zaila izan.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zure ametsetan errepikatzen den elementu horri erreparatu behar diozu. Zure hurrengo erabakia hartzen lagunduko dizu.



«Jatekoa antzekoa izan arren, lurralde bakoitzak berea du»

ANDER ZARRAGA ▶

Zouhayr Manouchek Maroko punta batetik bestera zeharkatu zuen gure-ra heldu aurretik. Bere jaioterria Aknoul herritik hurbil dagoen herrixka bat da, Marokoko ekialdeko Rif mendialdean. Handik Tetuanera joan zen bizitzera, eta urte batzuen buruan etorri zen Uribe Kostara. Gaur egun, elektromekanika ari da ikasten eta hemen geratzeko asmoa duela dio: «Hemen bizitza egitea gustatuko litzaidake, horregatik nago ikasten». Dioenez, bere burua etortzera behartuta ikusi zuen bizi-baldintzengatik, baina, hemen, ondo dago, «bakarrik etorri nintzen arren, jendeak laguntza eman dit».

Bere herrialderi buruz kontatu du Aknoul eta Tetuan oso desberdinak direla; bat mendietan dagoen herrixka bat da, eta bestea kostaldeko hiri handia. Bere jaioterrian bereberrak dira gehiengoa, eta hori beraien kultura eta hizkuntzagatik bereizten da, arabieraz gain, bereberra ere egiten dutelako. «Adibi-

dez, jatekoan ere nabaritzen da, Marokoko jateko gehienak antzekoak izan arren, lurralde bakoitzak berea duelako. Kus-kusa edo tajina desberdinak dira batean edo bestean». Horrez gain, bere jaioterrian oso ospetsua da arku-mearen inguruan egiten duten ospakizuna: «Etxeetan batzen gara familiako kideakaz eta lagunakaz denak elkarregaz arkumea jateko». Aldiz, Tetuanen sardinak jateko ohitura dutela dio, olioagaz egindako errezeta batez.

Horrez gain, bere jaioterria mendi inguruan dagoen herrixka txiki bat da, eta inguru horretan errepideak ez dira oso onak, beraz, euri asko egiten duenean, etxeak isolatuta geratzen dira aldiro. Bere herria menditsua eta nahiko berdea dela kontatu du, baina ez Tetuaneko ingurua bezain beste. «Hala ere, ez da hegoaldeko eremua bezain lehorra, Marokon basamortua baino askoz gehiago baitago». Halaber, Aknoul inguruan ur-jauzi, erreka eta mendi ederrak dituztela ere azpimarratu du, «txikitari horietara joaten ginen txangoan». ◀



Zouhayr Manouch

Nongoa

Aknoul, Maroko.

Adina

25 urte.

Zertan dabil


Ikasten.

Noiz heldu zinen?

2022an.

Noiz arte bertan?

Auskalo.



Lurraldea

Maroko.

Azalera

446.550 km².

Hiriburua

Rabat.

Biztanleria

37.840.052 (2018).

Hizkuntzak

Ofizialak arabiera eta bereberra, baina bestelako hainbat ere erabiltzen dira, hala nola frantsesa eta espainola. Bereberraren barruan, beste hainbat dialeko erabiltzen dira.

Moneta

Dirham marokiarra.

Amaia Sinobas 'Dancehall' irakaslea

«Kolektibitatea nagusi da 'dancehall'-a dantzatzeko dugunean»

Amaia Sinobasek kultura jamaikarraren berri ematen du 'dancehall' mugimenduak Uribe Kosta osoan erakusten. Beragaz egon gara bere lana hurbiletik ezagutzeko.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Txikitatik dantzaria, 2013an YouTube sare-sozialaren bidez izan zuen Amaia Sinobasek *dancehall*-aren berri. 2015ean Bartzelonara joan zen bost urtez formakuntza jasotzera eta, orduetik, dantza jamaikarra erakusten dihardu. Klaseak eman ditu Erandio, Leioa, Sopela eta Santutxun, eta, ahal duen guztietan, Jamaikara bidaiatzen du pauso berriak ikastera eta bertako kulturaren murgiltzera.

Zer da *dancehall*? Jamaikatik datorren musika, dantza eta sub-kultura da. Kaleetatik sortzen da, klase-baxukoek dantzatzeko dutena. Beraz, ez dago gizartearen alde guztietatik onartuta. Bertako egunerokotasunaren inguruan hitz egiten du musikak, eta dantzak berarekin bat egiten du. Oso iraultzailea eta soziala da. Batez ere, diruaz, modaz, armez eta sexuaz berba egiten dute.

Eta zuretzako? Ezingo nuke esan nire bizimodu denik, azkenean, beste pertsona batzuen errealitatea eta kultura delako. Askok ikasi dut haiengatik, betiere errespetu handiz, eta hori transmititzen ahalegintzen naiz nire klaseetan. Baina nire bizitzako zati handi bat da. Mugitzeko era oso ezberdinak daude eta jende guztia da ongi etorria.

Nolakoak dira zure klaseak? Niretzako garrantzitsuena da leku seguru bat izatea, lotsak eta segurtasun eza kentzea ezinbestekoa delako. Lehenengo, buruan ditugun paretak kendu behar ditugu eta, gero, mugimenduan zentratu. Emozionalki eroso egotea da nire-



Erandio, Leioa, Sopela eta Santutxun klaseak ematen ditu Sinobasek. HODEI TORRES

Aldaketak

«1980tik orainarte aldaketa asko egon dira 'dancehall'ean musika eta teknologiarekin batera. Adibidez, sare-sozialek eragin dute askoz dantza azkarragoak egitea, eta horrek Jamaikan eragina izan du»



tzako oinarrizkoena. Izan ere, dantza beti ikusten da apur bat helezina. Erosotasun hori sortzen badugu, ikusten dut jendeak asko hobetzen duela eta beste guztia errazago datorrela. Niri *dancehall*ak sorrarazi dizkidan gauza guztiak transmititu nahi dizkiot jendeari eta eskura jarri.

Oso mugimendu irekiak ditu dantza horrek; leku asko okupatzen da dantzatzeko. Nabaritu duzu nolabaiteko ahalduzko zure ikasleengan ikasten doazen heinean? Bai, noski. Niri hori gertatu zitzaidan, horregatik maitemindu nintzen *dancehall*az. Egiten diren mugimendu motengatik baino, esango nuke musikak eramaten zaituen lekuagatik gertatzen dela ahalduzko hori. Klaseetan transmititzen saiatzen naiz Jamaikan gertatzen dena; azken finean, kolektibitatea nagusi da *dancehall*a dantzatzeko. Horrek lotsa galtzea ahalbidetzen du, beraz, mugimenduen garrantzia dute, baina, batez ere, nire ustez testuinguruak laguntzen du. ◀

Mikel Erdozain Igerilari paralinpikoa

«Helburua Los Angelesera joatea da, esperientzia zoragarria izan baita»

Parisko Paralinpiar Jokoetan emaitza positiboagaz debutatu ostean, Mikel Erdozain igerilari leioztarrak Los Angelesen 2028an egingo diren Jokoetara joatea jarri du jomugan.

ANDER ZARRAGA ►

Parisen bizitako esperientzia «izugarria» izan dela kontatu du Erdozainek. «Amets bat lortzea bezalakoa izan da; estadioa 17.000 pertsonagaz beteta oihuka ikustea izugarritzko esperientzia izan da», adierazi du 21 urteko leioztarrak. Hala ere, horra heldu aurretik, kontatu du lau urte behar izan zituela igerian ondo egiten ikasteko: «Asko kostatu zitzaidan, dudan garun paralisiatatik uretan flotatzea oso zaila zelako niretzat, baina pixkanaka-pixkanaka, eta Natalia Folgado entrenatzaileari esker, lortu nuen».

Bere debut olinpikoan, Erdozain S2 mailan aritu zen 200 metro librea eta 50 eta 100 metroko bizkarreko probetan. «Lortutako emaitzekin nahiko pozik nago: 100 metroko bizkarrean nire markaren inguruan egon nintzen eta 10. amaitu nuen; 50 metroan ez nintzen hain ondo ibili, hasieran ataskatuta geratu nintzelako, eta 200 metro libretan nire errekorra eta Espainiakoa hautsi nituen, beraz, oso ondo horretan ere», dio egindako lanagaz pozik.

HASIERA GOGORRA. Igerian ikasten aritzetik Joko Paralinpikoetara joateko gonbidapena lortu arte, egindako ibilbidea luzea izan da, baina lortu duena konstantziari eta entrenamenduari esker izan dela azpimarratu du: «Bakoitzak bere erritmoa dauka, niri asko kostatzen zait gauzak egitea, baina konstantziari eta lanari esker lortzen dut aurrera ateratzea». Deportiva Nautica Portugalete taldean hasi zen entrenatzen, Folgadozag eta garun paralisia duten beste kirolari batzuzag, baina CO-



Erdozain Basque Team Fundazioagaz batera joan zen Paralinpiar Jokoetara. HO DEI TORRES

Kirolaren garrantzia
«Kirola niretzat terapia modukoa da eta igeri egiteak asko laguntzen dit gorpuzaren errehabilitazioa egiten. Psikologikoki ere oso garrantzitsua da gainera. Horrez gain, lagun asko egin ditut; niretzat kirola lehia baino askoz gehiago da»

VID-19aren ostean, klub hori desagertu egin zen. Hala, 2022an Erandio Baita taldea sortu zuten, eta horren kide da gaur egun. Horrez gain, Paralinpiar Jokoetarako prestatzen egon da udan Mataro edo Sant Cugatzen (Katalunia) dauden errendimendu handiko zentroetan. «Horri esker, 50 metroko igerileku olinpiko batean entrenatu ahal izan nuen; sentsazioak oso onak izan nituen, eta, horri esker, Parisera sasoi onean heldu nintzen». Halaber, Paralinpiar Jokoen aurretik, Erdozain Madeiran (Portugal) ere izan zen, Europako Txapelketan.

Igerian aritu aurretik, Erdozain, boccia eta beste hainbat kirolatan ere aritu da. «Bost urte egon nintzen bocciako lehiaketetan, eta jolasten jarraituko dut denbora-pasa bezala, baina igeriketari denbora gehiago ematea gustatuko litzaidake». Izan ere, igerilariak argi du hobetzen eta lehiatzen jarraitzeko asmoa duela: «Auskalo hemendik lau urtera zer gertatuko den, baina helburua Los Angelesera joatea da. Parisko esperientzia zoragarria izan da eta errepikatu nahiko nuke; beraz, orain gehiago entrenatuko dut». ◀

Iker Gordon Pala-jokalaria

«Astero frontoia 400 pertsonarekin betetzea izugarria izan da»

ANDER ZARRAGA ▶

Iker Gordonek (Sopela, 1990) eta Roman Maldonado taldekideak Pala Joko Sopela Pro 24 txapelketa irabazi zuten, irailaren 30ean, udal pilotalekuan egin zen finalean. Esteban Gaubeka eta Ibai Perez izan zituzten aurrez aurre, eta, partida gogor baten ostean, 7-10, 10-9, 10-3 eta 10-5 emaitzagaz eskuratu zituzten txapelak.

Zer sentitu zenuen finala etxean irabazi zenuenean? Sekulako poza izan zen. Txapelketa garrantzitsua bilakatu da, batez ere EITBk partiduak zuzenean ematen dituenetik, eta nire herrian hori lortzea eta etxekoei eskaini ahal izatea sekulakoa izan da. Orain arte jokatu dugun txapelketarik garrantzitsuena izan dela esango nuke, bai frontoira joan den zaleen kopuruagatik, bai antolakuntzagatik ere. Astero frontoia 400 pertsonarekin betetzea izugarria izan da, hori ez dugu bizi izan orain arte.

Beraz, nabaritzen da instituzioetatik eta enpresetatik egiten ari diren ahalegina? Ekonomikoki ez nuke jakingo esaten zeintzuk diren diru-laguntzak, baina bai nabaritu dugula EITBren konpromisoa txapelketa honekin, astero promozionatzen egon direlako; azken finean, telebistan agertzen dena da jendeari heltzen zaiona; hor dago gakoa.

Nolakoa izan da finalera heltzeko ligaxka? Maila oso altua egon da, partiduak oso zailak izan dira, denak erabaki baitira azken jokoan eta finalean hori ere gertatu zen: gu galtzen hasi ginen eta beraiek sekulako maila erakutsi zuten, bai Ibaiek atzean defendatzen, bai Estebanek aurrean jokaldiak bukatzen. Guk buru-belarri jarraitu genuen gure jokoari abiadura emanez, eta, azkenean, kostata, baina aurrea hartzea lortu genuen. Oso partida polita eta gogorra izan zen, eta horrek finalei zapore oso ona ematen die.



Maldonado eta Gordon garaipena ospatzen. SOPELAKO KURENE PILOTA ELKARTEA

Frontoiko DNA
«Afizionatu-mailan ezker paretan eskuz, trinketea, larruzko palan eta one wall-ean aritu naiz. Frontoia daukat DNAn, eta afizionatueta nengoenean guztiak probatu nahi nituen. Pala profesionalean debutatzeko aukera izan nuenean, beste lehiaketak utzi behar izan nituen eta palarekin geratu»

Lehen aldiz jokatu duzu Maldonadogaz batera? Lehen aldia izan da, bai, eta oso gustura egon naiz. Lehen egunetik harremana oso ona izan da eta momentu txarretan elkarri animatu diogu; horrek eragina izan du azken emaitzan. Bera argentinarra da, han trinketak sekulako ospea dauka; izan ere, maila altueneko jokalaria hangoak dira. Batzuk ezker paretara pasatu dira eta horretan ere sekulako maila dute; horien artean daude Pablo Fusto eta Roman Maldonado.

Sopelako harrobia nolakoa da? Arratsaldeetan entrenatzaile aritzen naiz Sopelako frontoian eta sekulako harrobia dago, bai eskuz, bai palaz. Neska gehiago ere ari dira sartzen eta ikusi da gure txapelketarekin herrian zaletasun asko dagoela. Hori zaindu egin behar dugun gauza bat dela pentsatzen dut.

Zure hurrengo txapelketa? Laster, Bizkaia frontoian jokatuko dena, eta abendura arte jokatuko dugu. Helburua disfrutatzea izango da, eta, ahal bada, finalera heltzea eta txapela irabaztea. ◀



Getxon Hazi eta Hezi

Oferta educativa
extraescolar en
euskera

ESKAINI

Aurten, 33 zentrok
eskaintzen dute
euskaraZko zerbitzua



www.getxo.eus/euskara



ESKATU

Zentro horietan,
eskatu zerbitzua
euskaraZ

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA


SOLUZIOAK:



AURREKO
SOLUZIOAK

Zenbat?

Zenbat euli daude
angurri zati honen
inguruan?



bbkΘ
**KARPIN
FAUNA**
ANIMALI BASATIEN
BABES ZENTROA





Zu bai hamalau!

Azkar batean, goiko eta beheko irudien arteko aldeak aurkitu behar dituzu. 14 dira guztira.



URRIAK 20 DE OCTUBRE ALGORTAKO DENDAK GURE KALEETAN

EL RECORRIDO COMENZARÁ A LA **13:00**
DESDE EL **MERCADO DE ALGORTA**

IBILBIDEA **13:00ETAN** HASIKO
DA **ALGORTAKO MERKATUTIK**

PARTE-HARTZAILEAK

- AMETS
- BEREZI
- BHU GETXO
- FLOR DE AWITA
- GAURKO
- GIMNASIO CURVES ALGORTA
- IÑAKI BI
- IRATI
- LA TRASTIENDA DE KUKUMIKU
- LINDAU TEJIDOS
- MABE MODA Y COMPLEMENTOS
- MARSUN ESTILISTAS
- VIMAN
- AMASARTE LABEA
- FLORES ARANTZA
- LA LATXA
- MERCADO DE ALGORTA
- MI MUNDO DE AZÚCAR
- POLLO CAMPEÓN ALGORTA
- VINILO FM



Zein hizkuntzatan ligatzen duzu gehienbat?



BENE MARKAIDA
SOPELA

Herrietako erromerietan mutilek neskek dantzatera ateratzen zituzten, gehienbat, gazteleraz. Nire garaian neskek normalean ez ziren aurreratzen ezer esatera. Brometan beti esan dut mutilen atzetik neskek ez direla egon behar. Euren aurrean geldirik gelditzea bai, horrela beragaz «estropezu» egiteko.



XABIER CACERES SILVA
BARAKALDO

Nik gazteleraz, normalean sare-sozialen bidez. Uste dut zaila dela euskaraz ligatzea, jendeak ez duelako hitz egiten. Nire egunerokotasun ia guztian gazteleraz egiten dut, beraz, ligatu ere. Uste dut erreza dela eta oso irekiak garelaz ligatzeko momentuan. Topiko bat da Euskal Herrian ez ligatzearena.



IRA MADARIAGA
BARAKALDO

Nire inguruan gaztelaniaz bakarrik ligatzen da, hori delako gure arteko hizkuntza. Ez dut inoiz euskaraz ligatu, kar-kar. Batez ere, mugikorren aplikazioen bidez egiten dugu, jada ez da «kaleko» gauza bat. Nik uste oso isila ez bazara eta jendearekin hitz egiten baduzu hemen ligatzea erreza dela.



YERA FERNANDEZ
LEIOA

Gazteleraz. Esango nuke, behar bada, euskaraz ligatzea zaila dela, ez dagoelako ohiturarik. Gazteleraz hasten zara eta gero ez duzu hizkuntza aldatzen. Baina uste dut gezurra dela Euskal Herrian ligatzen ez den topiko hori: bakoitzak bere izaera du eta gehiago edo gutxiago liga dezake.



UNAI URRUTIA
ARETXABALETA

Nire herria Gipuzkoan dago, beraz, egia da, bertan batez ere euskaraz ligatzen dudala. Hala ere, bertatik kanpo, gazteleraz. Gehienbat, diskoteketan eta juergan ligatzen da. Gainera, gaur egun sare-sozialak erabiltzen ditu jendeak ligatzeko: Instagrameko *story*ak erantzuten asko ligatzen da.



IRATI ANTON
BILBO

Nire inguruan, normalean, gazteleraz ligatzen da, askok ez dutelako euskaraz berba egiten. Suposatzen dut herri bakoitzean ezberdina izango dela, baina hemen beste inguruetan baino zailagoa ikusten dut euskaraz ligatzea. Hala ere, uste dut jendeak pila bat ligatzen duela Euskal Herrian.



IBAI PEREZ
AZPEITIA

Nik euskaraz ligatzen dut. Izan ere, Azpeitian eta inguruko lekuetan euskaraz ligatzen da gehienbat. Baina, hemen, Bilbo eta Uribe Kostan inguruan, ikusten dut gazteleraz ligatzeko ohitura duela jendeak batez ere. Gehienbat, sare-sozialen bitartez eta juergan egiten dutela esango nuke.



MAIDER ETXARRI
BILBO

Bilbo inguruan batez ere gaztelaniaz ligatzen dela uste dut. Euskaraz jakin arren inguru honetan jendeak ez duelako hitz egiten. Batez ere, festetan esango nuke ligatzea ez dela zaila. Erreza ere ez, baina jendeak ligatzen du. Euskal Herrian ligatzen da eta esaten dutena, topiko hutsak direla uste dut.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!


Zozketa

Ibaizabalen misterio liburua

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, 8 urtetik gorako umeentzako *Xeherlock detektibea*, *Totonkatumonen altxorra* edizio berezia zozkatzen dugu.

Ausartu eta parte hartu!

Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 27a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Funbox-erako sarrera bikoitza

Barakaldoko Funbox parke puzgarri ikaragarriko sarrera bikoitzak zozkatzen ditugu!

Ez galdu benetako adrenalina gorputza mugituz sentitzeko aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 27a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Unai Elorriagaren liburua

Francesco Pasqualeren bosgarren arima da Unai Elorriagaren azken eleberria. Datu historikoak eta fikzioa konbinatuz, lagundu ezazu Francesco protagonista bidaia zirrargarri honetan!

Zozketan parte hartu gura baduzu, urriaren 27a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



ekarri zuk ere argindar
faktura goienerera





berriztagarria
bertokoa
euskalduna
kooperatiboa



goiener



 Satimami zumarkalea 26. Bilbo

 goiener@goiener.eus
 www.goiener.eus

946 277 701
900 816 365